



Behatokiak 1.013 gertaera (936 kexa) jaso zituen 2014an, Euskararen Telefonoaren bitartez ▶22

Olalla Elorriaga Lopez sommelier urduliztarrak parte hartu du Bizkaiko Sommelier Elkartearen berpizkundean ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



22. zenbakia

2015eko
ekainaren 25etik
uztailaren 1era arte

Jazz doinuak airean

Getxoko Nazioarteko Jazzaldia uztailaren 1etik 5era bitartean egingo da Algortan.

▶11



Madeleine Peyroux abeslaria, aurtengo jazzaldiko izarra

HERRIZ HERRI ERANDIO / SOPELA

Festak, aukeran!

Sopelan, sanpedroak ospatuko dituzte ekainaren 25etik 29ra. Erandion, otera, Kukularra auzoak hartuko ditu ospakizunak aste akabuan. ▶ 5 / 6



HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Herrikoak, mehatxupean

Herriko tabernak konfiska ditzaten agindu irmoa eman du Auzitegi Gorenak. Aste akabuan mobilizazioak izango dira.

Honako elkarteak dira kaltetutakoak: Algortako Gorrondatxe, Altzagako Hegoalde, Astrabuduko Erandioztarrak, Berangoko Sei-herri, Itzubaltzeta/Romoko Branka, Leioako Kurkudi, Sopolako Mikelats, eta Urdulizko Iretargi. «Libre eta zabalik» izateko mobilizazioak egingo dituzte. ▶10



Gure Esku Dago

Bilboko ekimenean parte hartu zuten uribekostarren argazkiak, bideoak, etab. ikusteko: www.hiruka.eus



Egunero 24 orduz Uribe Kostako albiste gehiago gure atari digitalean: www.hiruka.eus

Getxo

Ekonomia-akordioak prest

Getxo Enpresak akordioak sinatu ditu Kutxabankegaz eta hainbat enpresagaz.

Udalerriko ekonomia bultzatzeko apustua ildo estrategikotzat izatean jarraitzen du Getxo Enpresak. Hori horrela, «bazkideei onurak ekarriko dizkien» hainbat akordio sinatu berri ditu; Kutxabankegaz horietako bat. Horregaz, bien arteko kolaborazioa indartu, eta Getxo Enpresako kideei «euren jarduerara sustatzeko produktuak eta finantza-zerbitzuak erraztuko zaizkie». Hala, hitzarmen berri horregaz, «merkatuko baldintza lehiakorrenak dituzten produktu eta zerbitzuen katalogo oso bat» izango dute udalerriko enpresek.

Adostutakoaren arabera, Negozio Kontua delakorako «abantaila eskusiboak» izango dituzte bazkideek, entitatearekiko harremanaren arabera doako zerbitzuakaz. Azaldu dutenez, ez dute Negozio Kontuaren mantenuaren gasturik ordaindu beharko, ezta lotutako VISA txartelen, TPV teminalen,



Kutxabankegaz gainera, Getxo Enpresak beste bost enpresagaz sinatu ditu akordioak.

txeke-sarreraren eta SEPA transferentzien komisiorik ere. Era berean, doan egin ahal izango dute lan Kutxabankeko banka onlinean, besteak beste.

Saltokiei begira, berriz, Getxo Enpresak arrisku anitzeko aseguruizango du aukeran. Modu berean, bestelako finantza-aukerak izango ditu eskuragarri, berbarako beherapenak, *leasing*, *renting* edo *factoring-a*.

Kutxabankegaz egindako akordioak, gainera, elkarteak antolatzen dituen hainbat ekintza babestea ekarriko du, esaterako: Erakusleihen

Lehiaketa, Getxo Dastatu eta Urteko Enpresen Topaketa.

Beste bost akordio

Kutxabankekoaz gainera, Getxo Enpresak beste bost akordio izenpetu ditu bazkideak diren enpresakaz. Horrela, lehentasunezko prezioak edo zerbitzuak izango dituzte elkarteko kide diren beste enpresek.

Akordioa sinatu duten enpresak honakoak dira: Ibarbarri Automozioa, Arkibatz, Proyecta Asesoría Integral, Prevensystem eta Solo en Casa.

Udan ez da egongo atzeritartasunari buruzko saiorik

Aurten ere, atzeritartasun legearen gainera informazio-saioak antolatu ditu Udaleko Immigratio Zerbitzua. Hilabetero egiten dituzte saioak: azken eguaztenean, arrastiko 07:00etatik 09:00etara, Algortako Villamonte kaleko kultur etxean. Informazioa ematen dute saioetan, egoitzabaimenak eta lan-baimenak lortzeko, familiagaz berriro elkartzeko, edo nazionalizazioa lortzeko, besteak beste. Antolatzaileek azaltzen dutenez, taldeko saio horiek biztanle guztiei darduzenduta, «oso interesgarriak dira pertsonak erregularizatzeko izapideak hasi behar dituzten enpresa edo pertsona enplegu-emailentzat». Urtarrian hasi zituzten saioak, eta ekainera arte hilero-hilero egin dituzte. Jakinarazi dutenez, uztailan eta abuztuan ez da saiorik egingo, uda dela eta. Irailan, ostera, ordutegia aurreratuko dute, 18:00etatik 20:00etara egingo dituzte; urrian eta azaroan betiko ordutegira bueltatuko dira, eta abenduan ere ez da saiorik egingo.

info +: getxo.net
www.facebook.com/kulturenarteangetxo
 harremanetarako: inmigracion@getxo.net
 944 660 151

UDAKO IKASTAROAK
Uztaila eta Iraila

Matrikula epea:
Ekainaren 1tik 30ra

Bulego ordutegia:
9:30etik - 13:30era
15:00etatik - 17:00etara

Azterketa ofizialak prestatzeko
5 ordu egunero

Algortako etorbidea, 104
48991- Algorta (Getxo)
94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net

Anboton egingo dute aurtengo Kultur Arteko Martxa



Euskal kultura, mitoak eta kondairak ezagutuko dituzte Anboton, uztailaren 5ean.

Bertokoen eta atzeritarren arteko guneak sortzeko asmoagaz, Kultur Arteko Martxa egingo dute Urkio-lara, uztailaren 5ean, domekan. Lagarren edizioa izango da aurtengoa, Lagun Artean, Itxas Argia, Egizu eta Etorkinen Plataforma Federazioak antolatuta. Elkar ezagutzeko eta batera egoteko aukera egoten da, eta euskal kulturaren, mitoen eta kondairen berri izateko ere bai. Aurreko ekitaldietan egin legez, hainbat jarduerak eta

dinamika desberdinak egingo dituzte. Aurton, berriz, arreta berezia eskainiko diote Anbotoko toponimiari. Hara joateko autobusa doakoa izango da, eta Algortako Telletxe plazan eta Areetako Xake plazan egingo ditu geldialdiak jendea hartzeko. Txangoan parte hartzeko alde aurretik izena eman beharra dago.

info+: www.getxo.net
 harremanetarako: intcultural@lagungt.org
 658 360 292 / 944 404 671

hiruka
Urbe Kostako astekaria

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa
hemen agertzea gura baduzu
ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus

Getxo

Artearen festa Algortan

Hilaren 27an, Garrobi elkarteak GART jaialdia egingo du San Nikolas eta Bihotz Alai plazetan.

Garrobi arte eta kultur elkar-teak GART jaialdia egingo du hilaren 27an, zapatuagaz, Algortan. Egun osoko egitaraua antolatu dute, goizeko 11:00etatik gaueko 00:00ak arte. Denbora tarte horretan, besteak beste, erakusketak, tailerrak, kontzertuak, antzerkiak, performanceak, proiektzioak eta hitzaldiak hartuko dituzte Algortako San Nikolas eta Bihotz Alai plazek. Getxoko eta beste leku askotako 30 artistak baino gehiagok hartuko dute parte, euren lana ezagutzera eman ahal izateko. «Helburua hainbat diziplina-tako artistei euren lanak aurkezteko posibilitatea ematea da, banaka edo taldeka, haien zabalkundea eta herri-tarrekiko hurbilketa handituko duten ekintzen bitartez», azaldu dute elkar-teko kideek.

Jaialdira gonbidatutako artisten artean dugu Diego Marquesek eta Mai-



GART egun osoko jaialdia izango da, Garrobi arte-kultur elkar-teak antolatuta.

tane Sarraldeak osatzen duten Lata-txo proiektua. Bi artista horiek azaldu dutenez, «elkartea eta hura osatzen duten kideak ezagutarazteko aukera bat» da jaialdia, artea kontsumitzeko aukera emateaz gainera.

Egun osoan, artistek euren lanak aurkeztuko dizkiete bertaratutako lagunei; bere lekua izango du artista bakoitzak. «Uneoro» ekintzak egongo

direla jakinarazi dute artistek: «eguna jardueraz beteta egongo da. Halaber, hainbat ekintza egongo dira publikoagaz, elkarri eragiteko».

Festibalaren ordutegia egun oso-koa izango da: 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 00:00etara. Doakoa izango da, gainera, sarrera.

info+: www.garrobi.com
harremanetarako: info@garrobi.com



Ekainak 27, zapatua

11:00-14:30 / 16:30-00:00

Artisten zerrenda:

A Base de Palos	Jose Carlos Torre
Ana Capilla	Juan Malk
Angel Fernandez	Kalabazan
Cara C	Latatxo
Cuarto Segundo	Lorenzo Rodriguez
Cuentos Inmorales	Mariana Collares
Desegin	Merce Zulueta
Eduardo Acebedo	Naiara Etxaiz
Eugenia Guridi	Oier Gil Zapirain
Gabriel Ocina eta Olga Martinez	Pablo Astrain
Hibernando	Pau Figueres
Estudio	Ryoko
Ibon Markaida (Txalupa Films)	Shakti Olaizola
Iker Careaga	UKnatura
Izaro Iregi	Utopian
Jose Fernandez	Vidalooka
	Zazkel

McEnroe musika-taldeak disko berria aurkeztuko du zapatuan

McEnroe musika-talde getxoztar-
rak *Rugen las flores* disko berria aurkeztuko du hilaren 27an, zapatuagaz, Bilboko Kafe Antzokian, 21:30ean. Eduardo Lizalde idazlearen *Recuerdo que el amor era una blanda furia* poemari dago inspiratuta lan berria. Aitortzen dutenez, pozak eta argitasunak bestelako zaratak isiltzen dituzten uneak iradokitzen ahalegin-
du dira; horren ingurukoak dira abes-

tien berbak ere. Diskoak 11 abesti ditu guztira, eta Sevillan grabatu dituzte, La Mina estudioetan. Masterizazioa, berriz, Roger Siebelek egin du, AEB-ko SAE Mastering estudioetan. Serie B dendetan eta Kafe Antzokian egongo da salgai diskoa. Era berean, Ricardo Lezon McEnroeko abeslari eta konpositoreak poema liburua argitaratu berri du: *Extraña forma de vivir*. Mota horretako bere lehenengo lana da. ◀



Ertzean

LAURA MINGE LAKARRA
Idazlea eta irakaslea

Animaliako lorpena

Komeni da gauzak perspektibaz ikustea. Euskal Herria herri ukatua izan da hamarkadetan. Burujabetza lortzetik hurbilen egon zen garaian, gerra zibila jasan eta ondorengo 40 urtean bere izatea bera ukatu zioten. Ondorengo 40 urteetan bere neurri-eginda ez zegoen jantzia bizi izan da. Indar politikoek nork bere aldera jotzen dutenez, mugimendu herritarra sortu da orain bi urte, aldarrikapen xumeaz: herritarrek erabaki nahi dute nolako jantzia bizi, behingoz neurri-eginda.

Perspektiba horretatik ikusita animaliakoa da Gure Esku Dagok iazko ekainean eta aurtengo ekainean lortutakoa. Begi bistakoa da. ◀

XXXIX GETXO JAZZ

UZTAILA 1-5 JULIO 2015

BIOTZ ALAI PLAZA
ALGORTA
21:00 h.

1. **ADRIANA**
ANFISIAS
TALDE LOMARITA - CONCIERTO DE ALFONSO
FEDERICO NATHAN QUINTET
AVISHAI COHEN "TRIVENI"
2. **ADRIANA**
DAYS
TALDE LOMARITA - CONCIERTO DE ALFONSO
MACEK WOJCIKOWSKI QUINTET
NETWORK
STANLEY JOHNSON - CASIMIR LUBERSKI
CHARNETT MOFFETT - JEFF "SAIN" WATTS
3. **ADRIANA**
VIVANTS
TALDE LOMARITA - CONCIERTO DE ALFONSO
GRZEGORZ WLODARCZYK QUINTET
JOE LOVANO QUARTET
4. **ADRIANA**
SABADO
TALDE LOMARITA - CONCIERTO DE ALFONSO
EVAN TREID
THE STANLEY CLARKE BAND
5. **ADRIANA**
DINAMITA
TALDE LOMARITA - CONCIERTO DE ALFONSO
MADELINE PEYROUX

www.getxo.eus • kultur@getxo.eus

Getxo



Maitane Sarraide eta Diego Marques gazteek ekarri dute Latatxo proiektua Getxora.

«Umeek ez dute sinesten kamerak direnik»

Sardina-latakaz argazki-kamerak egiten irakasten dute Latatxon, argazkilaritza, birziklapena eta ekintza soziala batuz. Hilaren 27an, GART '15 jaialdian egongo dira.

IKER RINCON MORENO ►

Diego Marques eta Maitane Sarraide gazteek Latatxo proiektua ekarri dute gurea. Sardina-latak argazki-kamera bihurtzen dituzte. Hurrengo tailerra hilaren 27an, zapatuan, egingo dute, Algortan izango den GART '15 jaialdian.

Nondik dator horrelako proiektua egiteko ideia?

Diego Brasilen bizi zela, lagun batek

komentatu zion pospolo kutxakaz kamera *pinhole*-ak egiten zituela. Hala, ideia hori buruan sartu, eta Portugalen argazkilaritza ikasi ostean, kutxa beltzaren kontzeptua oinarri hartuta, otu zitzaion umeei argazki-kamerak egiten irakastea. Pospolo-kutxak sardina-latakaz ordezkatu genituen, Portugalen asko kontsumitzen baitira sardina-latak. Hala, lata horiek argazki-kamera bihurtzeko hainbat saiakeraren ostean, mekanismo sinple eta erraz bat lortu genuen, umeek eroso egiteko modukoak. Hasiera batean, ikastaroak kutsu sozial batez egiten

genituen, auzo baztertueta umei zuzenduta. Hala, bost tailer inguru egin genituen Portugalen. Ondoren, Maitane etorri zenean, erabaki genuen proiektua Euskal Herrira ekartzea, harrera ona izango zuelakoan, eta Getxon egin ditugu tailerrak.

Nori zuzentzen dizkiozue antolatzen dituzuen jarduerak?

Egia esan, hemen ez dago hainbeste behar sozialik; hori dela eta, hezkuntza-alorrera bideratzea erabaki genuen. Hala ere, Bilboko Otxarkoaga, San Frantzisko eta Zorrozaurre auzoe-

tako gazteentzako tailer batzuk proposatu ditugu, baina une honetan dirurik ez dugunez, ezin ditugu gauzatu. Era berean, jende nagusiarengana ere heldu gura dugu. Helduakaz esperientzia onak izan ditugu orain arte, eta eurengana iritsi nahiko genuke orain.

Zelakoak izaten dira tailerrak?

Hiru etapatan banatzen ditugu. Lehenengo tailerrean, kamera ilunaren nondik norakoak azaltzen ditugu: funtzionamendua azaltzen dugu teoriarik eta praktikan; horixe da argazki baten oinarria. Sardina-latakaz argazki-kamerak egiten ditugu ondoren. Normalean, zulatuta eta beltzez margotuta eramaten ditugu guk etxetik, hori baita zailena. Hala, umeek kamerak muntatu baino ez dute egin behar, birziklatutako materialagaz. Ondoren, kamerak apaintzen dituzte, euren gustura. Azkenik, tailerraren arabera, inguruetatik bueltatxo bat ematen dugu, argazkiak ateratzeko eta prozesu praktikan jartzeko. Argazkia ateratzeko, segundo gehiago edo gutxiago behar ditugu, argiaren arabera. Argazkiak egin eta gero, argazki-filmak batu, errebelatu, digitalizatu eta helarazi egiten dizkiegu eurei. Batzuetan, egindako argazkiak erakusketaren bat ere egin izan dugu; eta aipatzekoa da webgunean argazki guztien artxiboa dugula.

Zapatu honetan Garrobi elkarteak antolatutako GART '15 jaialdian hartuko duzue parte, ezta?

Bai, 10 pertsona ingururentzako tailerra eskaintzeko asmoa dugu. Ikastaroa gutxi gorabehera bi ordukoa izango da, behar dugun denboraren arabera. Latakaz kamerak sortuko ditugu, eta ondoren, denok batera aterako ditugu lehenengo argazkiak, teknika eta egin beharreko guztiak ikasteko. Gero, egun osoa izango dute argazkiak ateratzeko. Egunaren amaieran, argazki-filmak batu eta errebelatuko ditugu. ◀

info+: www.latatxo.com

UDAKO IKASTAROAK 2015

UDAN ERE EUSKAHALDUNDU ZAITEZ!

EUSKALTEGIAK

2 ASTEKOBARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 - 946 464 000

www.aek.eus

aek

URIBE KOSTA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leioa - 944646063
lamia@aek.org

Getxo - 944304734
lauaxeta@aek.org

Plentzia - 946773607
jentilbaso@aek.org

Gorliz - 946773646
jentilbaso@aek.org

www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekosta.aek

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"

Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

OSTABIDE HORTZ KLINIKAK

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

PINTXOAK

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:

RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK

AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

Erandoio

Kukularrako jaiak gozagai daude jada

Kukularrako jai-batzordeak festak antolatu ditu aurton ere, Erandioko auzora hiru ospakizun egun ekarri. Besteak beste, Olgetan solas-jolasak izango dira.



Kukularra auzoa ezinbesteko etapa da eskualdeko jai zaleentzat.

Pasa den ekainaren 4an, Erandiogoikoko Gorpuzti jaiak abiatu zen Erandioko festen maratonia. Kate luze horretako hurrengo hitzordua aste akabu honetan izango da. Izan ere, Kukularra auzoak bariku honetan, hilak 26, isiotuko du ospakizun hasierako suzuria, 19:00etan. Ordubete beranduago, ohi-ko igel-tokaren txapelketa hartuko du auzoak. Auzotarrek baino ezin izango dute parte hartu, Jai-batzordeak aurreratu duenez. Horren ostean, 21:00etan, sardina-jana egingo dute, festei behar besteko indarraz ekin ahal izateko. Hala, indarberrituta, musika izango dute lagun, gura izanez gero gaupasa egiteko.

Jai-egunak, ekimenez lepo

Zapatuan eta domekan ere familia osorako jarduerak egingo dituzte: paella lehiaketa, umeentzako Moto GP lasterketa, pailazoak, tortilla lehiaketa, ludoteka, magia, Olgetan solas-jolasak, eta askoz ekimen gehiago. Erandioko Udal Musika Bandak ere ez dio muzin egingo urteroko hitzorduari. ◀

Egitaraua

Ekainak 26, barikua

19:00 Txupina.
20:00 Igel-tokaren lehiaketa.
21:00 Sardina-jana.
21:30 Musika-saioa Duo Alaigaz.
23:00 Dj musika-saioa.

Ekainak 27, zapatua

11:00-14:00 Umeentzako parkea.
12:00 Paella lehiaketa, 14:30ak arte.
15:00 Paellen sari-banaketa.
15:30-18:30 Umeentzako parkea.
18:30 Moto GP VI. Lasterketa (umeentzat).
19:00 Gurrpil biko irristagailuen lasterketa.
19:30 Potxin eta Patxin pailazoak.
22:30 Tandem taldearen kontzertua.
23:30 Dj musika-saioa.

Ekainak 28, domeka

11:30-16:30 Ludoteka.
12:00 Udal Musika Banda.
13:00 Tortilla lehiaketa, 14:30ak arte.
13:30 Hamaiketako helduentzat.
14:45 Tortillen sari-banaketa.
16:30 «Olgetan solas» familientzako jolasak.
19:00 Asier Kidam magoa.
20:30 Traka eta jaien amaiera.

Astrabuduak VIII. Motorren Topaketa hartuko du zapatuan

Goma errearen usaina izango da nagusi zapatu honetan Erandioko Astrabudua auzoan. Izan ere, goizeko 11:00etatik aurrera, Astrabu Motor Klubak martxan ipiniko du motoen topaketaren zortzigarren edizioa. Ordu horretan izen-ematea zabalduko dute Mendiguren plazan. Inskribatuko diren lehen 400 lagunek kamiseta eta opari bat izango dituzte. Eguerdian, neska-mutilen norgehiagoka izango da, laugarren urtez Motoplastik sari nagusia jokatuko baitute. 13:00etan, triki-potea egingo dute taberna babesleetan, eta lau ordu beranduago, alkohola jaitzita, motoek ibilbidea osatuko dute herri eta inguruetatik.



Dozenaka motorzale batu ohi dira Astrabudian.

18:30ean, motor-jokoak egingo dituzte, eta 20:00etan Pol Stunt-en, *show* akrobatikoa. Parrillada eta sari-emanaldiagaz amaituko da jaialdia. ◀

info+: facebook.com/astrabu.astrabclubmotero

Iker Rodrigo Sortuko kidea absolbitu du Auzitegi Nazionalak

Iker Rodrigo Basterretxea Bizkaiko Sortuko koordinatzaileorde lutzanarra absolbitu du Espainiako Auzitegi Nazionalak. Rodrigo ekainaren 16an epaitu zuten Madrilen, 2013ko apirilaren 12an Javier Lopez Peña «Thierry» ETako burukidearen gorpuari Loiu-ko aireportuan egindako harrera planifikatzea eta «terrorismoa goratzea» egotzita. Hala ere, epailearen arabera, ekitaldi horretan egon izana da egiazta daitekeen gauza «bakarra». Hasieratik karguak ukatu zituen Rodrigok. Teresa Sandoval fiskalak 18 hilabete-ko espetxe-zigorra eta 12 urteko inhabilitazioa eskatu zituen erandioztarren aurka. ◀

Astrabuduko jaietako kontzertuak iragarri dituzte daborduko

Abuztuaren 6tik gra izango dira Astrabuduko jaiak. Nork bere agenda denboraz antola dezan, Ulpiano Astrabuduko jai-batzordeak Mendiguren plazako kontzertuak iragarri ditu daborduko. Abuztuaren 6an, eguna, Tierra Kritikal bertako hip-hop taldeak emango die hasiera jaietara, Munza eta Denny Rosii DJakaz batera. Barikuan, Kresala taldeak berbera eskainiko du. Zapatuan, emanaldi hirukoitza izango da, La M.O.D.A., Alamedadosoul eta Babel Covers-en kontzertuak. Eta domekan, Mike Kennedy Los Bravos taldeko kide izandakoa ekarriko dute, eta beragaz batera, Somas Cure, Radiocrimen eta Rat-Zinger taldeak. ◀

GURE ETXEA
 taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ITXASGANE
 prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
 Amiluze z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

GARAIZAR
 BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
 Illeta kalea 1 ALGORTA

OIARBIDE
 DEKORAZIOA

• Pladur: Tabikeak, zapaia, baloak
 • Eskaiola: moldurak, kornisak
 • Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 88 10 gorkaolabide@hotmail.com
 Andikoetxe 2, GETXO

LUBERRI
 Basolanak S.L.
 LOREZAJINTZA

SGS
 Nº ES108014

SGS
 Nº ES108015

• **Soropila Ezartzea**
 lurazko prestatze lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lurazko-organitze lanak eta erate lanak.

• **Soropila zaintzea eta mantentzea**
 Madia, ureztatze, organitze, egurazte, aratze eta destinkatze, benelkatze, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

• **Inausketak**
 Hazteko, mantentze, benetze, zuhaiko apaindariak inausketak, esabateko inausketak.

• **Barrikaldeen lorategi bihurtzea**

Axpe ibaitza 28A behelgo solarria B12 lokala (ERANDIO) Meg. 629 41 18 38 • Tf. 94 467 17 13 • Fax: 94 467 42 41
luberril@euskalnet.net - www.luberril.biz

Sopela

Fracking ez! taldeak jaurtiko du txupina

San Pedro jaiak ospatuko dira ekainaren 26tik 29ra; Betagarrik eta Kepa Junkerak kontzertua eskainiko dute.



Udaletxeko balkoitik irakurriko dute pregoia.

Azken urteotan legez, Sopelako jai-batzordea lanean ibili da «jai herrikoi, parte-hartzailer, parekide eta euskaltzaleak egiteko asmoarekin». Aurten herriko sustraian garrantzia azpimarratu gura dute: «natura eta kultura». San Pedro jaietan, Frackingaren aurkako aldarria egingo dute, eta Fracking ez! Sopelako taldeak emango du pregoia eta jaurtiko du txupina. Larrabasterrako Karmen jaietan, berriz, Meñakoz elkarteak abiaraziko du jaia. Sanpedroak ekainaren 26tik 29ra izango dira, eta gustu eta adin guztietarako egitaraua prestatu du jai-batzordeak. Umeentzako gunea, adibidez, Zipiriñe eskolan egongo da. Gainera, besteak beste, sukaldaritza-lehiaketarik eta kontzerturik ez da faltako. Ondo pasa eta ez pasa! ◀

Ekitaldi batzuk:

Ekainak 26, barikua

21:00 Pregoa eta txupina, Udaletxe plazan.

23:00 Kontzertua: Tiktara, Udaletxe plazan.

23:00 Kontzertua: Big Mouth eta Emon, txosnetan.

Ekainak 27, zapatua

11:00-14:00 eta 17:00-20:30 Jolas-parkea, Zipiriñe eskolan, egunero.

14:00 Herri-bazkaria, Jauregizar plazan.

18:30 Kuadrillen jolasak, Udaletxe plazan.

20:00 Kalejira Los Charros mariachiakaz.

Ekainak 28, domeka

10:00 Bakailao txapelketa, Udaletxe plazan.

13:00 Tortilla eta sangria lehiaketa, txosnetan.

17:00 Briska txapelketa, udaletxean.

23:00 Betagarri, Udaletxe plazan.

23:00 Kontzertua: Donna Versus eta Tacumah Reggae Band, txosnetan.

Ekainak 29, astelehena

13:00 Txorizo-jana, Udaletxe plazan.

20:00 Bertsolariak, txosnetan.

21:00 Kepa Junkera & Sorginak, Udaletxe plazan.

Egitarau osoa: hiruka.eus



Zipiriñeko ikasle bi, Bizkaidatzeko onenak

Zipiriñeko ikasle bik irabazi dute Bizkaidatz Txikia I. Literatura Saria, euskarazko kategorian (umeen mailan): lehen eta bigarren sariak jaso dituzte, hurrenez hurren, Paul Lores Serranok eta Joana San Andres Bochobak. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu du sariak, eta maila bi egon dira hizkuntza bakoitzeko: umeena (Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailen arteko ikasleentzat) eta gazteena (Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4. mailen arteko ikasleentzat).

Ikasle biak dira LH 4. mailakoak, eta gaztelaniazko lanak ere aurkeztu zituzten. Egia esan, ikaskide denak aurkeztu

ziren, eta denbora librean idatzi zituzten ipuinak. Pello Sarriegi Urretabizkaia Zipiriñeko zuzendariaren iritziz, lan handia egin dute; noski, irabazleak oso pozik ei daude. Loresek tablet gailu bat irabazi du, eta Andresek, liburu-irakurgailua. Eskolari ere material-sorta bat eman diote.

Lehiaketaren zeregina ez da izan ohi-koa. Antolatzaileek ipuin bi proposatu dituzte, bata euskaraz, bestea gaztelaniaz; euskarazkoa da *Zuhaitz neska*. Ipuinaren lehen orriak emanda, parte-hartzaileek azken laurak idatzi behar izan dituzte, hau da, ipuinaren amaiera. Aldundiak irabazleen lanak argitaratuko ditu. ◀



Saridunak, Zipiriñe eskolan.

ander deuna
ikasitola

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikasitola.eus

Ondo pasa jaietan!

Gourmet CARNE DE AQUÍ CON TODA GARANTÍA

eurosuper
harategiak

GORLIZ: Obrador y venta al público. Polig. Sagastikoetxe
Tel. 94 677 46 00
MUNGIA: Landa Okela. Goietako plaza. Tel. 94 615 55 04

supermerkatuak

PLENTZIA: c/ Gaminiz, 4. Tel. 94 677 71 44
SOPELA: c/ Bentatxu, 6. Tel. 94 676 62 75

Gure Baratz

Tel. 94 677 46 62
GORLIZ: Polig. Sagastikoetxe

Occy Surf Tavern
Landa 4, Sopela

ONDO PASA JAİETAN!

La Kala
Sopela

IPINTXO GOXO GOXAK!
JAİETAN KONTZERTUAK!

Sartutxo, 5 SOPELA
Tel. 944 048 108

meñakoz
Jateixea

Especialistas en carne y pescado a la brasa.

Tlf: 946572709
C/ Zubigane nº1 (Sopela)
www.restaurantemeñakoz.com

MAITE
Prentsa eta Liburudenda

Zubigane 5 - Sopela / Tel.: 94 676 25 26
Gora San Pedro Jaiak!

Sopela



info+: skateparksopelan.blogspot.com.es

«Paregabeko skate-parkea izan daiteke»

Joseba Kortazar Mota soziologoak dinamizatu du skate-parkearen lan-taldea. Prozesu parte-hartzailea burututa, Ingesta inguruan kokatuko dute, eta udagoienera, zabaldu.

Urtebete baino gehiago iraun du skate-parkea diseinatze-ko prozesuak, eta 34 bilera egin dira.

Laster hasiko dira skate-parkearen lanak, ezta?

Lan-taldeak hiru enpresa gonbidatu ditu lehiaketara. Orain jakin behar da zeinek aurkeztu duen eskaintzarik onena. Kontratazioa egingo da horren ostean, eta lanei ekingo zaie gero.

Zer onura ekarriko dio Sopelari?

Sopelak daukan surferako eta skate-

rako ohiturarekin, harrigarria da Sopelan skate-parkerik ez edukitzea. Onurak herritarrentzat agerikoak dira. Batetik, ez dutelako joan beharrik izango beste herri bateko pistetara. Bestalde, eta kontuan izanda Sopelak turismo asko erakartzen duela, gaur arte ase ez den eskaera beteko du skate-parkeak. Prozesuan, indar berezia egin da gai horretan, bai proiektuaren ezaugarri aitzindarietan, bai kokapenean; munduan skate-parke gutxi dago Sopelakoa bezalako toki pribilegiatuan. Beraz, beste leku batzuetako pertsonak erakarriko ditu, zabalpen

eta oihartzun handia izango du he-
dabideetan eta, txapelketak eta era-
kustaldiak egiteko, eta abar. Gainera,
aukera emango du skate edo txirrin-
dularitza eskolaren bat sortzeko, bai-
ta egungo surf-eskolak indartzeko ere.
Onura handiak ekar diezazkieke he-
rriari eta herritarrei.

**Prozesu parte-hartzailea egin da. Ze-
lakoa? Nork hartu du parte?**

2014ko martxoan hasi zen. Ezinbeste-
ko baldintza izan zen herritarrek par-
te hartzea. Beraz, Sopelan skate-par-
kea badago, prozesuan parte hartu eta

berau sostengatu duten pertsonen es-
ker izan da. Eskerrak eman nahi diz-
kiet parte hartu duten guztiei, dina-
mizatzailerik gisa aritu naizen aldetik.
Batzuk etorri dira bilera batera; beste
batzuk, bitara, eta beste batzuk, guz-
tietara. Den-denak beharrezkoak izan
dira proiektua gauzatzeko. Hala, lehe-
nik, lan-taldea osatu zen. Jakin behar
genuen Sopelan nahikoa jende ote ze-
goen interesatuta skate-parkea eraiki
dadin. Behin hori egiaztatuta, elkar-
lanean hasi ginen, beharra antolatuz,
helburuak finkatuz, lana banatuz. Ho-
rretan, lehen egitekoa, eta nekezena,
kokapena erabakitzea izan zen. Izan
ere, eragozpen desberdinak zituen au-
kerako leku bakoitzak. Hortik aurrera,
eta asko sinplifikatuz, gauza mordo
egin da: beharrak detektatu, pista des-
berdinak ikertu, enpresak eta euren
lanak aztertu, inguruko pistak mia-
tu, arkitektoa, diseinua, lehiaketara
gonbidatzeko enpresak aukeratu, eta
abar.

Zer balorazio egiten duzu?

Oso positiboki baloratzen dut. Askok
ikasi dugu, eta ohartu gara politika
egitea zaila dela. Prozesu arrakasta-
tsua izan bada ere, jende gehiago in-
plikatu zedin nahi genukeen. Kontuan
izan behar da parte-hartzea oso bali-
garria dela, baina berria ere bai. Botoa
ematek harago inplikatzeko aukera
ematen du, baina denbora behar du,
lana... eta denek ez daukate behar be-
ste denbora.

Zergatik Ingesta eta ez beste leku bat?

Azkenean, eta Sopelako biztanleria
gehien bizi den gunetik urrun egon
arren, toki horretan ez zaio enbara-
zurik egingo inori. Beraz, ez da egon-
go mugarik. Etorkizunean, handitu li-
teke, eta skate-parke paregabea egin,
nabarmentzeko modukoa.

Eta, azkenik, noiz zabalduko da?

Bide naturala jarraituz gero, irailerako
eraikita egotea espero dugu. ◀

erroia
Kafetegia
C/ Eleizalde Sopela Tf. 94.404.86.48
ONDO PASA JALETANI!

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Dr. Landa 6 eta Ibero 9 / 49600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didadahamilton.com

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**
Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

**TABERNA
FRONTOIA**
Sabino Arana 4, Sopela
BOKATAK 3,50€
Tortilla, frantsesa bonito, txorizo...
ondo pasa jaletani!

Irunbat
galp enpresa
C/ Loloia Ander Deuna, 74
Teléfono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net
OFERTÓN MARTES Y SÁBADO

LURPEN
Hizketa
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRIA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko atzean)

FOTOXABIER
Doctor Landa z/g, Sopela
Tel.: 94 676 03 09
Ondo pasa jaletani!



Lumak astindu

KOLDO TELLITU MEJIA
Ikastolen Elkarteko
lehendakaria

Espainiar argitaletxeak eta LOMCE

Azkenaldi honetan LHko 3. mailako ebaluazioari aurre egiteko hainbat ekimen ikusten ari gara ikastetxeetan. Hauen paisaian Lomceren aurkako kartelak eta leloak ere ohiko bihurtu dira. Inposatu nahi diguten lege honen aurka hezkuntza komunitatea indarrez altxatu da eta denok egin dugu gurea «Lomceri EZ» leloa.

Bitartean, paradoxikoa bada ere, Lomceren edukiak jasoko dituzten ikasmaterialekin aurrean ez da ahotsik altxatzen, ezta go-goetarik egiten ere. Espainiar Estatuko argitaletxeek Lomceren espiritua jasoko dutela bere ikasliburuetan, eta Euskal Herrian zabaldu, argi adierazi dute azken egunetan; eta ez hori bakarrik, berau aplikatuko duen ikasmaterialela erabiltzen ez dutenak salatu dituztela ere esan dute.

Une honetan bi argitaletxe bakarrik dira beren ikasmaterialek euskal ikuspegiak lantzen dituztenak: Ikasgelak eta Erein, beste guztiak zuzenean, edo euskaldun duten filialen bitartez, ikuspegi espainiarretik azaltzen dituzte edukiak atal bat erantsiz erkidegoari; gaur egun, adierazi duten bezala, horrek LOMCEn aplikazioa suposatzen du.

Esan bezala Hezkuntza komunitateak oso jarrera aktiboa agertu du hezkuntza lege atzerakoi honen aurrean, «Lomceri EZ» leloa nonahi entzun eta irakur daiteke, baina LOMCeri aurre egiteko erarik eraginkorra da, eta garrantzitsuagoa dena, Euskal Herriko Hezkuntza sistema propio bat eratzeke, nire ustez, konpetentzietan oinarrituriko euskal curriculumak sustatu eta garatu behar dugu, eta bide horretan ezinbestekoak dira ondoko konpromiso praktikak aurrera eramatea: gela eta eskolako lana planteamendu honen garapen-ikuspegitik jorratzea eta LOMCEn irizpide baztertzailaetan oinarritzen diren ikasmaterialek ez erabiltzea. ◀

Leioa



Irailaren 13ra arte egongo dira zabalik Pinosoloko kanpoko igerilekuak. ©LEIOAKO UDALA

Kanpoko igerilekuak zabaldu dituzte

Ez da beharrezkoa izango kirol-instalazio bakoitzeko txartel bana edukitzea, batetik bestera ibiltzeko.

Ezainaren 13an ireki zituzten Pinosoloko kanpoko igerilekuak, leioaztarren zein kanpotarren gozamenerako. Aurten ere ez da beharrezkoa izango udaleko kirol-instalazio bakoitzerako txartel bana edukitzea, batetik bestera ibili ahal izateko. Berbarako, Sakoneta kiroldegiko bazkide izanda, kanpoko igerilekuetara sartzeko aukera egongo da; betiere, dagokion ordainketa egin bada, udal arduradunek zehaztu dutenez. Hori dena alde batera utzita, zurrumurru batek sortu du egonezina auzotarren artean; sare sozialen bidez eta kaletan adierazi dute leioaztarrek euren haserre. Pinosoloko kanpoko igerilekuetara edaririk ezin daitekeela sartu zabaldu da Leioan. Iban Rodriguez zinegotziak esan duenez, legez ezin

da edari karbonataturik edo alkohol-dunik kontsumitu igerilekuetako berdeguneetan. «Horrek ez du esan nahi bakoitzak ezin dezakeenik eraman kantinplorarik edo ur-botilarik, behar duenean freskatzeko», gaineratu duenez. Berdeguneen eta tabernako terrazaren artean, esparru bat ipiniko dute kanpotik ekarritako edariak ere kontsumitu ahal izateko.

Sarbidea erraztuz

Sarbidea errazteko asmoz, leioaztarrek beste leku batean ere bazkide ahal izango dira kanpoko igerilekuetara edota padel pistetara sartzeko; Sakonetako kiroldegian, alegia. Pinosolon ere posible izango da bazkide-tzea. Erabiltzaileei erraztasunak emateko helburuagaz, Sakonetan ere erosi ahal izango dira kanpoko igerilekuetako eguneko sarrerak, baita hamakak alokatu ere. Erostean diren egunerako bakarrik balioko dute sarrerak, hau da, ezin izango da aurretiaz sarrerarik erosi hurrengo egunetarako. ◀

Euskara ikasteko diru-laguntzak

Euskara ikasteko diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Leioako Udaren Euskara Zerbitzuak. Neguko ikastaroetarako, uztailaren 3ra arte egongo da laguntza eskatzeko aukera; eta udako kurtsoetarako, irailaren 28tik urriaren 9ra. Diru-laguntza jaso dezakete helbide soziala udalerrian daukaten elkartetako kideek, 12 urtetik beherako umeen aita-amek, eta 1991etik 1998ra bitartean jaioak. Horiei denei matrikularen erdia ordainduko diete. Familia unitateko gutxieneko diru-sarrerara heltzen ez direnei, ostera, matrikularen %80 emango diete. Hala ere, euskara ikasteko diru-laguntzak jaso gura dituzten denek izango dituzte betebeharrak: Mastitxu udal euskaltegiko edo Lamia AEK euskaltegiko ikasle izatea, gutxieneko asistentzia %85 izatea; eta, gutxienez, lehenago gainditu ez den urrats bat gainditzea. Eskaerak aurkezteko Euskara Zerbitzura jo behar du: Kultur Leioako laugarren solairuan (Jose Ramon Aketxe plaza, 11), 09:00etatik 13:30era. ◀

info+: 946 072 576 / euskarazerbitzua@leioa.net

Erosketak etxera eroateko zerbitzua

Leioa Bidean da herriko dendetan Legindako erosketak etxe bantatzeko zerbitzua, eta aurrera jarraituko du, udal iturriek baieztatu dutenez. Leioako Merkatarien Elkartek hitzarmena sinatu du Grupo SIFU enpresa leioaztarraz, banaketaz arduradain. Agintari leioaztarrek adierazi dute arrakastatsuak izan direla azken sei hilabeteotan egindako probak: 80 merkataria baino gehiago batu dira ekimenera, eta erosketak etxera eramateko 3.000 eskaeratik gora jaso dituzte. Denera, 1.200 herritarrek erabili dute Leioa Bidean zerbitzua. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez:

Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)

info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



leioa Urbe enpresag 34 (Alfaroa Parke) Gauri Eranza
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

Berango



Hilabete bi barru hasiko dituzte eraikitze-lanak.

Kooperatiba pisuak Santa Ana auzoan

Hilabete bi barru hasiko dituzte Santa Ana auzoan kooperatiba erregimenean dauden 16 etxebizitza eraikitze lanak.

Berangoko Santa Ana auzoan 16 etxebizitza eraikitze lanak hilabete bi barru hasiko dituzte. Etxebizitzak kooperatiba erregimenean izango dira eta lehenengo aldia izango da udalerrian mota horretakoak egiten dituztela. Arduradunek aurreikusitako epeen arabera, 2016ko udagoienerako amaituta egongo dira etxebizitzak. Jakinarazi dutenez, etxebizitza horietako bat gorde egingo dute, Uribe Kostako Mankomunitateko udalerrietako batean gizarte-larrialdirik egonez gero, behar duenak erabil dezan.

Etxebizitzak 60 metro koadro ingurukoak izango dira; trastelekua eta garajea izango dituzte, eta 160.000 eu-

roan erosi ahal izango dira. Eraikiko dituzten hamasei etxebizitzetatik, hiru pisu salgai daude oraindino. Hala, hiru horiek saldutakoan izango duten dirua etxebizitzak eraikitze lanetarako dute.

Azaldu dutenez, hasiera batean, alokairuko etxebizitza sozialak egin gura zituzten lur-eremu horretan; hala ere, krisi ekonomikoaren eraginez, «ezinezkoa» ikusi zuten mota horretako proiektua aurrera ateratzea. Egoera horren aurrean, lur-eremu hori Arrasate Sociedad Cooperativa sustatzaile pribatuari saltzea erabaki zuen Berangoko Udalak.

Aipatu legez, udalerriko Santa Ana auzoan eraikiko dituzte etxebizitzak. Inguru horretan beste 70 partzela daude; gehienez, 150 etxebizitza eraikitze-lanetarako. Gaur egun, hogeita hamar bat etxebizitza eta baserri daude Santa Ana auzoan, eta 150 lagun inguru bizi dira guztira. Hala, auzoak bizilagun gehiago hartuko ditu, 2016ko udagoienerako egingo dituzten etxebizitzakaz. ◀

Kirolgunea goizez egongo da zabalik uztail osoan

Uda heldu da, eta Berangoko kirolgunearen ordutegi berria, horretara egokituko dute. Hala, kirolgunea goizez zabalduko dute uztail osoan, astelehenetik domekara, 10:00etatik 14:00etara. Abuztuan, ostera, itxita egongo da. Kirolgunea alokatzeko, 688 638 267 telefono zenbakira deitu beharra dago, 24 ordu lehenago. Alokairuaren prezioa 25 euro orduko izango dira, Berangokoak ez diren elkarrekin. Udalerrikoak direnek, berriz, doan hartu ahal izango dute. Norbanakoen kasuan, erroldan ez daudenek 30 euro orduko pagatu beharko dituzte. Erroldatuta daudenek, aldiz, adi-



Abuztuan itxita egongo da.

naren arabera ordaindu beharko dute: 16 urtetik beherakoek, doan; 16 eta 35 urte artekoek, euro bat, eta 35 urtetik gorakoek, 18 euro ordu bakoitzeko. ◀

Harremanetarako: 688 638 267



info+: www.berango.net

Bigarren eskuko azoka egingo dute hilaren 28an

Hilaren 28an, domekagaz, bigarren eskuko azoka egingo dute Berangoko Nagusien Etxearen ondoko plazan. Bosgarren edizioan, goizeko 11:00etatik arrastiko 03:00etara egongo da aukera, bigarren eskuko edozer gauza erosteko edo truke egingo. Han saltoki edo truke-postu bat

eduki gura izan dutenak hilaren 19ra arte izan dute eskaera egiteko aukera. Postu bakoitzak mahai bi izango ditu. Antolatzaileek azaldu dutenez, ezin izango da ondoko ezer aurkeztu: artikulu berriak, stock-ekoak, eskulanak, animaliak, ezta elikagaiak ere. ◀

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irabialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Txakur TZ Zerbitzua

Zu eta zure txakurra elkar oneratu behar duzue. Bera alferri eta berekin komunikatzera bultzatzen dizugu.

LEHENENGO HITZORDUA DONI!

ITU y tu perro tienes derecho a entenderse! Nosotros te enseñamos a comprenderle y a comunicarle con él.

PRIMERA CITA GRATIS!

serviciocanino@yahoo.es
tel. 688.687.073

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Sarritik Borobiara

PAUL
BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Legegintzaldi berrian udalak euskahaldun

Udaletako hauteskundeak igaro eta, honez gero, eskualdeko udalak eratu dira. Egia esan, herriarrok biziki eskertzen dugu horren luze egiten zaigun kanpainaren amaiera. Halere, orain benetako erronka dator. Udal-gobernu berriek lau urteko zikloari hasiera eman diote, eta haien programek jasotakoa betetzeaz gain, herritarren eskubideen bermerako politika are eragingarriagoak abian jarri beharko dituzte, besteak beste, herritarren euskaraz bizitzeko eskubidearen bermerako.

Hizkuntza-politika eragingarria garatzeko zutabeetako bat arkitektura juridiko egokia da. Udalen eskumenei dagokienaz, ordenantzak dira jorra dezaketenen araudia. Ondorioz, euskararen ordenantzak dira udalek ikuspegi juridikotik hizkuntza-politika eragingarri bat garatzeari egin diezaioketen ekarpen garrantzitsuenetako bat.

Gure eskualdean, oker ez bango, udal batek ere ez du euskararen ordenantzarik, eta horrek auzo lotsa eragiten dit. Are gehiago, hiriburuak alde batera utzita Euskal Herriko bigarren hiri populatuena den Getxon ere udalak ez du oraindik onartu euskararen ordenantzarik eta, zalanztza barik, egoera demolingustikoak eta euskarak irabazi beharreko espazioak are beharrezkoak egiten ditu Ordenantza eragingarriak gure udalerrian.

Diotenez, instituzioek lehen ehun egunetan hartzen dituzte erabaki garrantzitsuenak. Izan ere, lau urte erabaki horiek zor ditzaketen desadostasunak baretzeko denbora nahikoa izaten da. Espero dezagun lehen ehun egun hauetan Uribe Kostako udalek euskararen ordenantzak onartzea eta legegintzaldian zehar aplikatzea edota inplementatzea. Finean, hori izango da eskualdeko udalak ere euskahalduntzen ari diren seinale. ◀

Uribe Kosta

Herriko tabernak babestera deitu dute

Herriko tabernak konfiskatzeko epaia berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Uribe Kostan, zortzi dira.

Herri Batasuna, Euskal Herriarrok, Batasuna eta herriko tabernen aurkako auzia zabaldu eta 13 urtera, Auzitegi Gorenak hilaren 18an ia oso-rik berretsi zuen iazko Auzitegi Nazionalaren epaia, irmo bihurtuz. Epaitegi Konstituzionalak kontrarik esan ezean, sententziak agindu du 35/02 auzian parte izan ez ziren 107 elkarteri ondasunak konfiskatzea, eta «erakunde terroristako» kideztat edo laguntzailatzat jotako 20 pertsonetatik bosti zigorra jaistea. Inor ez da kartzelan sartuko, nahiz «ETAren fronte militarrek» Batasuna «erakundee-tan sartzeko tresna gisa erabili» zuela «frogatutzat» eman. Hala ere, herriko tabernetako kideek, Libre eta Eleak plataformek, Sortuk eta Aralarrek sa-



Pasa diren eguen eta barikuan ehunka lagun atera zen kalera, herriko tabernen alde.

latu dute epaiak ahalbidetuko duela «36ko gerran faxistek egin zituzten konfiskazioetatik hona egin den lapurretari handiena». Aste akabuan mobilizazioak eginez, herriko tabernak defendatzera deitu dute plataformek.

Uribe Kosta

Jose Luis Franco, Maite Amezaga eta Izaskun Barbariasen 15 hilabeteko zigorra ez da aldatu, ezta eskualdeko 8

herrikoen «bahiketa» ere. Honakoak dira datozen egunotarako baieztaturako ekimenak: eguenean, herri-batzarra Abianen (Algorta), 19:00etan; barikuan, protesta zaratzatua, Jado kalean (Altzaga), 20:30ean; zapatuan, auzolanak eta mobilizazioak, Brankan (Itzubaltzeta/Romo), 11:00etatik aurrera; eserialdia, Mikelats tabernaren aurrean (Sopela), 20:00etan; igandean, bazkaria, Egokin (Astrabudua). ◀

Urduliz

Santa Mariñeko haitzetan, basoa landatuko du Udalak

Urdulizko Udalak 69.816 euro inbertituko ditu, Santa Mariñe haitzen magalean bertoko zuhaitzakaz baso bat landatu eta hazteko. Basoak 11.514 metro koadroko azalera hartuko du, aspaldi negutegiak zeuden lursail bitan. Udalak zabaldu duenez, hainbat helburu bete gura du ekimenagaz: herriko birika berdea bilaka-

tzea haitzen ingurua; udalerriak urtero sortzen dituen 10.000 bat tona CO2 orekatzea; bertoko hegaztiak berreskuratzea, esaterako belatza, sai zuria, hontza eta belea; eta herriko inguru hori leheneratzen jarraitzea. Izan ere, aurtengo ekimena azken urteotako hirugarrena da. 2012an eta 2014an, harrobi zaharrak berreskuratu zituzten. ◀

Gorliz

Erromeria San Pedro plazan, hilaren 29an

Hilaren 29an, astelehenagaz, dantzaren egiteko aukera egongo da San Pedro plazan, 19:00etatik 23:00etara. Aratz taldeagaz dantza egiteaz gainera, aukera egongo da sardinak dastatzeko. Gainera, aretoko dantzen erakustaldia, musika-jartzaile bat, eta suzkozezena ere egongo dira. ◀

Umeentzako informatika-ikastaroa

Udalak 8 eta 12 urte arteko neska-mutilentzako oinarriko informatika-ikastaroa antolatu du, uztailaren 1etik 21era artekoa. Klaseak Sertutxetan izango dira, astelehenetik barikurara, arrastiko 04:00etatik 06:00etara. Ikastaroan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute aurretiaz. ◀

Lemoiz

Olatu-energiaren Armintzako prototipoa, eredugarri

Greenpeacek «Espainiako ingurumenaren erradiografia soziala» izeneko txostena argitaratu du. Txostenean, Espainiar estatuko erkidegoetako 400 «puntu beltz» eta «jarraitu beharreko» 214 adibide positibo aurkeztu ditu. Txostenaren arabera, erkidego batek ere ez du ingurumen-kalitate handia. «Erkidego guztiek dute ingurumen-kalitate ertaina edo baxua», adierazi du Julio Barea txostenaren arduradunak. Indizearen arabera, Errioxak, Nafarroak eta Madrilak lortu dute puntu gehien; eta horien ostean daude Extremadura, Gaztela eta Leon, Galizia, Andaluzia, Katalunia, Balearrak, Murtzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Asturias eta EAE. Valentziak, Kantabriak eta Aragoik lortu dute, aldiz, puntu gutxien. EAeren barruan, azkenik, olatu-energiaren Armintzako prototipoa goraitu dute: olatuek eragindako energia aprobetxatzen du prototipoak. ◀

info+: www.greenpeace.org



Algortako Bihotz Alai plazan izango dira talde-lehiaketa eta kontzertu nagusiak. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Jazza bost egunez

Getxoko Nazioarteko Jazzaldia uztailaren 1etik 5era bitartean izango da Algortako Bihotz Alai eta Telletxe plazetan, hamaika saio eskainiz.

Uztailaren 1etik 5era, jazz-denboraldia abiatuko da Getxon, 39. Nazioarteko Jazzaldiagaz. Saio nagusietan, Madeleine Peyroux, Stanley Clarke, Joe Lovano, Stanley Jordan eta Avishai Cohen musikariek jardungo dute aurtontzat (Algortako Bihotz Alai plazan, 22:15ean). Talde-lehiaketako (Bihotz

Alai plazan, 21:00etan) eta Hirugarren Milurtekoa ataleko kontzertuak gehitu behar zaizkie horiei. Azkenik, uztailaren 2tik 4ra izango diren jam session saioek (Algortako The Piper's Irish Pubean, 00:00etan) biribilduko dute jazzaldiaren eskaintza. Bihotz Alai plaza-kontzertuak bakarrik izango dira ordaindu beharrekoak: 10 eta 23 euro

artean egongo dira sarrerak, egunaren eta kontzertuaren arabera. Saio denetarako abonamendua ere egongo da, 65 euroan.

Saio nagusiak

Avishai Cohenek emango dio hasiera jazzaldiari, eguaztenean, hilaren 1ean. Bere belaunaldiko tronpeta-jole onenetako bat da, adituek diotenez. Biharamunean, hilak 2, Network taldeak joko du. Instrumentista handiek osatutako laukotea horrek Charnett Moffett kontrabaxu-jole itzela du buru. Uztailaren 3an, barikua, bide erdia gaitutako du jazzaldiak, Joe Lovanoren eskutik. Musikari estatubatuar hori jazz-eszenaren berritzaile eta inprobisatzaile ospetsuenetarikoa bat da, eta erreferentzia bihurtu da saxo tenorraren arloan. Zapatuan, osteratzen, jazz-rocka delako estiloaren ordezkari eta karisma handiko Stanley Clarken txanda izango da. Azkenik, Jazzaldiaren urrezko amaiera domekan jarriko du Madeleine Peyrouxek. XX. mendearen amaieran jazzaren arloan sortu zen abeslari arrakastatsuenetako bat da. Sarri askotan, «ahots handiakaz» alderatu izan dute, barbarako Billie Holidaygaz.

Egitarau osoa agendan (12 orr.)

Uda osoan, 15 bertso-saio eskainiko ditu Algortako Bertsolari Eskolak



Uztailaren 8an egingo dute Bertso Jaialdi Mundiala, Algortako Bihotz Alai plazan. © ALBE

Algortako Bertsolari Eskolak ekainaren 19ko Balkoitik Balkoira bertso-saioagaz eman zien hasiera uda sasoiko ekitaldiei. Hiru hilabeteen, 15 saio eskainiko ditu ALBEk, tartean herrietako jaietakoak eta ekitaldi bereziak. 35. urteurrena ospatzen dabil bertsolarien eskola al-

gortarra, eta kutsu berezia edukiko dute emanaldi denek, zalantza barik. Uztailaren 8an, eguaztena, izango da aurtengo Jaialdi Mundiala, iluntzeko 21:00etan Algortako Bihotz Alai plazan. Eta, urtero legez, azken ordura arte jakingo ez den sekretua izango da: aurtengo saioaren gai nagusia.

Bestalde, jai-egitarau gutxi egongo da eskualdean bertso-saio barik. Eta zelan utzi aipatu barik Algortako San Ignazio jaietako bertso-eskaintza. Jaietako egun denetan, lehenengoa kenduta, bertso-saioa egongo da Kasino plazan, 13:00etan. Uztailaren 31n, San Ignazio egunez, Bertso Maratoia egongo da, jaietako ezinbesteko zita; eta abuztuaren 1ean aukera egongo da kantuan entzuteko elkarregaz Bizkaiko lau txapeldun: Fredi Paia, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Jon Enbeita.

ALBE Eguna

Domeka honetarako, hilak 28, ALBE Eguna prestatu du Algortako Bertsolari Eskolak. 12:00etan abiatuko da poteoa Bodeguilla Butron tabernatik; eta 14:30ean izango da bazkaria (20 euro, helduek; 15 euro, adin txikikoek), Algortako Sagardotegian. Izena emateko azken eguna hilaren 25a izango da. ◀

izen-ematea: 605 704 385 / albegetxo@gmail.com

Udako Egitarauko ekitaldi batzuk

Ekainak 29, astelehena

20:00 Sopelako jaietako txosna-gunea

Sopelako Kuadrilla Txapelketako sari banaketa.

Bertsolariak: Paule Loizaga eta Unai Mendiburu.

Uztailak 8, eguaztena

21:00 Algortako Bihotz Alai plaza

Bertso Jaialdi Mundiala.

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Jone Uri, Fredi Paia eta Xabi Paya.

Uztailak 27, astelehena

20:30 Gorlizko elizako plaza

Gorlizko Jaiak.

Bertsolariak: Inazio Vidal, Unai Agirre, Maialen Lujanbio, eta Anjel Mari Peñagarikano.

Uztailak 31, barikua

13:00 Algortako Kasino plaza

Algortako Jaietako Bertso Maratoia.

Bertsolariak: Andoni Egaña, Jone Uri, Beñat Gaztelumendi eta Imanol Uri.

Andoni Egaña eta Jone Uriak kantatuko dute bazkarian eta ondorengo poteoan ere bai.

info+: albe.eus

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria



2015eko **ekainaren 25etik** **uztailaren 1era** arte



LEIOA

Umeen begirada eta herriko politika uztartuz

Leioako Herri Laborategiak antolatu, UmHerri:5 jardunaldiak egingo dituzte ekainaren 25etik 28ra. Hala, besteak beste, Francesco Tonucci eta Antonella Prisco pentsalari italiar-irek jardungo dute umeen begirada-ren eta herriko politikaren gainean, ekainaren 25ean, 17:00etatik aurre-
ra. Tonuccik asmatu zuen 1991ean Umeen Hiria kontzeptua. Umeen auto-

nomia indartu beharra dagoela dioen tesiarri eusten dio berak: «umeek h-rien gobernuan parte hartu ahal dute ideiak eta eskakizunak adieraziz, eta helduen gehiegikeriak salatuz». Ho-
rrenbestez, eguenean, jardunaldi ire-
kia egingo dute 09:30etik 18:30era Kultur Leioan. Haurren Hiria propo-
samenaren inguruan lanean dabil-
tzan pertsonak gonbidatu dituzte eki-

info+: www.herrilaborategia.org

2015/06/25 - 20:30

Leioa Kantika Korala, kontzertuan

San luan Bataiatzailearen eliza | Leioa
San luan Kontzertuak 2015 zikloaren barruan.
Basilio Astulezek zuzenduta. Sarrera doan.

2015/06/26 - 2015/06/27 - egun osoan zehar

Lanbro Beltza topaketak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Plentziako Udalak eta *Calibre* 38 aldizkari digitalak antolatuta. Genero beltzeko nobelari

2015/06/27 - 18:00

La canción del mar filma

Kultur etxea | Urduliz
Edozein adin etako laguntzat. Gaztelaniaz.
Sarrera: 3,50 euro.

2015/06/27 - 19:00

Un golpe brillante filma

Berango Antzokia | Berango
Edozein adin etako laguntzat. Gaztelaniaz.
Doan.

Uztailak 1, eguaztena

19:00 Hirugarren Milurtekoa atalean, Jazzing Band taldea, Algortako Geltokiko (Telletxe) plazan. Sarrera doan.

21:00 Uruguai eta Alemaniako Federico Nathan Quinteto (talde lehiaketa), eta Avishai Cohen Trio, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera: 10 euro.

Uztailak 2, eguena

19:00 Hirugarren Milurtekoa atalean, Victor de Diego Trio taldea, Algortako Geltokiko (Telletxe) plazan. Sarrera doan.

21:00 Poloniako Maciek Wojcieszuk Quintet (talde lehiaketa), eta Networik, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera: 12 euro.

Uztailak 3, barikua

19:00 Hirugarren Milurtekoa atalean, Onna Project taldea, Algortako Geltokiko (Telletxe) plazan. Sarrera doan.

21:00 Poloniako Grzegorz Włodarczyk Qt. (talde lehiaketa), eta Joe Lobato Quartet, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera: 15 euro.

Uztailak 4, zapatua

19:00 Hirugarren Milurtekoa atalean, Philippe Lemm Trio taldea, Algortako Geltokiko (Telletxe) plazan. Sarrera doan.

21:00 Frantziako EYM Trio (talde lehiaketa), eta The Stanley Clarke Band, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera: 23 euro.

Uztailak 5, domeka

19:00 Hirugarren Milurtekoa atalean, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra, Algortako Geltokiko (Telletxe) plazan. Sarrera doan.

21:00 Talde lehiaketaren irabazlea eta Madeleine Peyroux, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera: 20 euro.

Halaber, uztailaren 2tik 4ra, jam saioak egingo ditu Three One Taldeak, Algortako The Piper's taberna iriandarrean; eta uztailaren 1etik 23ra, Antonnio Porcar Canoren *Phocuzz* argazki-erakusketa, Algortako Torrene aretoan.

Sarrerak salgai daude Kutxabank-eko kutxazainetan, www.kutxabank.es webgunean eta Algortako kultur etxean. Bihotz Alai plazako saio denetarako abonamendua 65 eurokoa da.



Opera kontzertua

egingo dute Algotan

Eguenean, ekainak 25, *Viva la opera* ikuskizuna egongo da Bihotz Alai plazan, 19:30ean; 5 euroan. Silvina Arroyo eta Yolanda Quincoces sopranoek, Andoni Barañano tenorrak eta Santos Ariño baritonoak abestuko dute. ◀

Bi barikutik behin,

Kantagunea prest!

Barikuan, ekainak 26, Kantagunea egingo dute berririo Plentzian. Baselizan ipini dute hitzordua 19:00etan, entsegua egiteko. Eta 20:30ean kantu-jirra egingo dute alde zaharretik, Eliz plazan hasita. Bi astetik behin egin ohi dute. ◀

Ipuin-kontalari bat,

arropa-dendan

Getxoaktibatu egitasmoaren barruan, bariku honetarako, ekainak 26, gaztelaniazko ipuin-kontaketa antolatu dute Algotako Etorbideko Begotxu dendan. Saioa 19:00etan izango da, eta Anabel Murok eskainiko du; sarrera doan. ◀



Bilillo y Los Sullos Golfo Norten

Bilillo y Los Sullos taldea zapatuan itzuliko da Barrikako Golfo Norte tabernara, *El Sur de America* azken diskoa aurkezteko asmoz. Batzuetan erasokorra, besteetan samurra, power-pop doinuak eskaintzen ditu Los Santos taldeko abeslari ohia buru duen bandak. ◀

Noiz: Ekainak 27, zapatua
Ordua: 20:00
Non: Golfo Norte taberna (Barrika)
Sarrera: Doan

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Iraunkor abesbatzaren

emanaldia

Maria Magdalena eliza | Plentzia
Elkarteko bazkideen omeneko kontzertua. Sarrera doan.

Raw eta Volans taldeak

Xurut pizzeria | Gorliz
Sarrera: 5 euro

Bigarren Eskuko Azoka

Nagusien etxearen ondoan | Berango
Parte-hartzea libre.

Campanilla: hadas y piratas

animazio-filma

Berango Antzokia | Berango
Umentzat. Gaztelaniaz. Sarrera doan.

Umeentzako dantza ikastaroa

Meso kalea, 15 (Astrabudua) | Erandio
Dance GM areto-dantzen elkarrearen ekimenez. Dantza lerroan, dantza garaikidea, zumba eta sevillanak. Prezioei eta ordutegiei buruzko informazioa: 679 480 970

San Pedro erromeria

San Pedro plaza | Gorliz
Aratz dantza-taldearen erakustaldia, sardina-jana, areto-dantzak, Dja eta zezensuzkoa.

Argazkilaritza ikastaroa: Lightroom tresnak

Atxutegi Kalea, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub elkarreak antolatuta. Doan. Informazio gehiago: 696 758 354

Helduentzako dantza ikastaroa

Meso kalea, 15 (Astrabudua) | Erandio
Pilates, ekialdeko dantzak eta bachata. Salneurri eta ordutegien gaineko informazioa: 679 480 970

Detektibeak kale-antzezlanea

Sarri plaza | Getxo
Eusko Jauriartzak sustatutako Kale-antzerkia bultzatuz jardunaldien barruan. Mon da Liron da taldearen ekimenez. Euskaraz. Doan.



Txoritokitik

IÑAKI
ZARRAKOA ZABALA
Getxoko alkate ohia

Gure esku dago

azko ekainean 123 kilometroko katea egin genuen, Durangotik Iruñera. Aurten Bilbon aldarrikatu dugu «aurten hautestontzia, bihar erabakia». Bietan alai, jai giroan, aniztasunez, bai pentsaeraz, adinez, bai hainbat ezaugarritz. Demokratiakoki, bakean.

Eskubide baten onarpena eta gauzatzea ari gara eskatzen. Gizarte banatu honetan, urteetan zehar hain sakabanatuta egon garen gizartean, gorrotoa, ezinikusia, higuina, sufrimendua, elkertasun eza, eta abar nagusi izan dugun gizarte honetan, denon artean eraiki nahi dugu etorkizuna, guztiakin adiskidetu nahi dugu, bizikidetzaz ezarri nahi dugu ezberdinen artean. Horretarako eskubide bat hartu dugu oinarri. Demokrazia sakonduz. Nortasuna, pentsamendua, ideologia, izaera onartzen dizkiogu elkarri eta elkarrekin egitasmo komun bat eraiki nahi dugu: denon artean erabakiko dugu gure geroa, denok onartuko dugu gizartearen erabakia.

Jende asko egon ginen Bilbon. Izugarria izan zen oihalen jaia ibai ondoan, Areatzan ikaragarri jende bildu ginen eta San Mamesen jaia borobildu genuen.

San Mames ez betetzeak porrotaren sentsazioa utzi zigun. San Mames behar izan genuen, hara joan ginen gu guztiok sartzeko ez baitago beste tokirik Bizkaian. Baina betetzea ezinezkoa zen, Euskararen alde 1978an bete genuen, baina San Mames zaharra zen hura (txikiagoa) eta orduan bizkaitarrok ez ezik beste lurraldeetako euskaldunok ere etorri zitzaizkigun. Orduan baino askoz bizkaitar gehiago egon gara 21ean San Mamesen.

Ikaragarria izan zen 21ekoa, Gasteizen, Iruñean eta Baionakoa historikoa. Pozik egon behar dugu egindakoaz. Oraindik ez dugu helburua lortu, baina bidean goaz, geroz eta jende gehiago, geroz eta indartsuago. Lortuko dugu! ◀



Jose Javier Abasolo idazle bilbotarra izango da topaketan gonbidatu berezia. © JOSE JAVIER ABASOLO

Lanbro beltzean murgilduta

Genero beltzeko nobela-topaketak berreskuratuko dituzte 22 urteren ostean, Plentzian. Ekainaren 26an eta 27an berbaldiak, azokatxoa eta kontzertua egongo dira.

Bi urtez jarrian, 1992an eta 1993an, egin ziren genero beltzeko nobela eta filmen inguruko topaketak. Haiek berreskuratzea erabaki du Plentzia-ko Udalak, *Calibre* 38 aldizkari digitalaren laguntzaz. Ekainaren 26an eta 27an, idazleen arteko mahai-inguruak, berbaldiak eta eztabaidak egongo dira Goñi Portal kultur etxean, *Bruma Negra* goiburua. Antolatzaileek aurreratu dutenez, Javier Otaola (*Brocheta de carne*), Javier Diez Carmona (*E-King*), Noelia Lorenzo Pino (*La sirena roja*) Joseba Lozano (*Argiaren erreinua*), Gonzalo Garrido (*Las flores de Baudelaire*)

eta beste hainbat idazlek parte hartuko dute. Zapatuan, 11:30etik aurrera, nobela beltzeko azokatxoa egingo dute, elizako plazan. Eta egun berean, baina arrastian, Bruma Negra kontakizun lehiaketaren irabazleen izenak ezagutzea emango dituzte, 20:00etan, eta topaketei amaiera eman, bide batez. Sariketara gaztelaniazko idatziak baino ezin izan dira aurkeztu aurten; oster, datorren urterako euskaraz ere antolatzea aurreikusten dutela adierazi dute sustatzaileek. Egitarauagaz jarraituz, rock&blues kontzertua egongo da gauean. ◀

Egitarau osoa: brumanegra.wordpress.com

Oskorrik agur esango du irailean, Getxoko Folk Jaialdian

Datorren udagoienez, kontzertujira batez, adio-agurra luzatu gura diete Oskorriko musika-taldeko lagunek bere jarraitzaile minenei, ia 45 urteko ibilbidearen ostean. Hain zuzen ere, irailaren 6an, Getxoko Folk Jaialdian hasiko da *Hauxe da despedidia!* kontzertu-sorta. Aldaketarik egon ezean, Areetako Xake plazan izango da Oskorriren emanaldia, 20:00etan. Euskal Herriko ia hiriburu denetatik igaro ostean, Bilbon amaituko dute bira, azaroaren 22an, Arriaga Antzokian, 19:30ean. Kilometroak milioika egin ditu Oskorrik; bidaia eta saio ordu amaigabeak pilatu ditu, 3.000 inguru kontzertu egin, eta ia 500 kanta grabatu. ◀

Baditu irabazleak Barrika On Air banda eta DJ txapelketak

Erainaren 20an, zapatua, egin ziztuzten Barrika On Air musika lehiaketaren finalak. Batetik, DJen atalean, *Brim* ezizenagaz ezagunagoa den Ibon Beitiak lortu zuen lehenengo saria. Bere atzean gelditu ziren Mikel Mix eta La Indieteca disko-jartzaileak, hurrenez hurren. Bestetik, Banden kategoriari dagokionez, Guillermo Marban izan zen garaile; The Own Project taldea bigarrena izan zen; eta Sangre de Mono, hirugarrena. Gainera, Golfo Norte tabernan zuzenean jotzeko aukera edukiko dute DJ Paulek eta Guillermon Marbanek, epaimahaiaren aipamen bereziei esker. Azkenik, zuzeneko onenaren saria, Some Days Out taldeari eman zioten entzuleek. ◀

Erdara hutsezko errotuluak markatzen dabilta Erandion eta Getxon



Ez dira gutxi erdara hutsezko errotuluak.

Euskaltzaileen Topagunearen ekimenez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 14 udalerritako komertzio, erakunde eta eragileen errotulazio eta komunikazioak euskaratzeko eskatzen dabilta oraingo hilean. Eskualdean, Berbots (Erandio) eta Bizarra Lepoan

(Getxo) euskara elkarteek heldu diote kanpainari: *eta hau zergatik ez euskaraz?* leloa duten pegatinak jartzen ibili dira, herrian aurkitzen dituzten erdara hutsezko errotulu eta karteletan. Pegatina ipini ostean, errotuluei argazkia atera, eta irudiok partekatzen dabilta Twitter zein Instagram sare sozialak erabiliz, edo kanpainarako sortu den webgunera bidaliz. Herria, eta errotuluaren edo kartelaren ugazaba ere (komertzioa, elkarte, taberna, erakundea) identifikatzen dituzte.

Euskaltzaileen elkarteetatik, gutuna bidaliko zaie erdara hutsezko errotuluak dituztenei, euren euskarri de-

netan euskara erabil dezatela eskatuz, eta horretarako laguntza eta aholkuak eskainiz, azaldu dutenez. Gainera, jasotako informazio eta testigantza denak Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren eta Elebideren esku jarriko ditu Euskaltzaileen Topaguneak. Ekainaren 30era arte iraungo du kanpainak, eta jasotako testigantza denakaz dosierra osatuko dute ondoren. «Azken hamarkadetan, urrats ugari eman badira ere, gura baino askoz ere presentzia eskasagoa dauka oraindik euskarak paisaia linguistikoan», salatu dute Euskaltzaileen Topagunetik. ◀

info+: euskaraz.36segun.eus



Iñaki Susunaga da Erandioko Sentinel Rock Club aretoko nagusia.

«*Herriko dozenaka taldek
jo dute Sentinelen!*»

Erandioko rock-aretoak
kontzertu denak bertan
behera utzi ditu,
udal dekretua tarteko.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Udalaren agiria jaso du Iñaki Susunaga Sentineleko nagusiak, kontzertuak egiteko baldintzak ez ei dituelako betetzen aretoak. Tirabiren mui-na maiatzaren 30eko Aupa Athletic Fest-en egon daitekeela uste du berak. Baimena lortzeko zailtasunak izan zituzten, eta udaltzainak agertu ziren goizaldek 01:30ean. Arrizen Monasterio Kultura zinegotziarentzat, ostera,

bi gauza ezberdin dira. Udal agintaria-
ren arabera, kontzertuak areto batean
egiteko «ez da nahikoa intsonoriza-
tzeagaz; besteak beste, edukierari eta
irisgarritasunari begiratu behar zaiz-
kie». Bestalde, 00:30ean ei zeukaten
Aupa Athletic Fest amaitzeko ordua.

Noiz hasi ziren arazoak?

Gure Lur tabernako jabeari eta bio burruatu zitzaigun Aupa Athletic Fest jaialdia antolatzea, Bartzelonaren kontrako Espainiako Errege Koparen finalaren egunean. Udalak kanpoko bandak baino ez dituen kontratatzen, pentsatu genuen herriko taldeak festibala egiteko egun egokia zela. Hala ere, Udalaren Kultur Sailaren atea jotzean, oztopoak baino ez genituen aurkitu. Guk biok bakarrik bai-

mena lortzea gaitz ikusten genuenez, Bodeguilla Riojana tabernako Miguelengana joatea erabaki genuen. Bertan du egoitza Athleticen lagunarteetako batek, Miguelek egin zuen eskaera.

Baimena lortu zenuten orduan?

Athleticen lagunartearen zigilua ikusi zutenean, aho zabalik gelditu ziren Udalekoak. Dirua geuk jarriko genuela esan behar izan genion Kultura zinegotziari. Kamioi-agertokia alokatu ere, alokatu behar izan genuen; eta astelehenean trafiko arazorik egon ez zedin, domeka goizean dena desmuntatuta egongo zela agindu genion.

Hasieran dena ondo zihoan...

Bai. Hiru taldek jo zuten partida arreretik, eta partida amaitzean, ekin ge-

nien berriro kontzertuei. Baina, gu jutzen genbiltzala, laugarren abestiagaz batera, udaltzain bi agertu ziren, baimenik ez geneukala esanez. Agertokitik jaitsi eta poliziakaz berba egin genuen; baimena bageneukala eta haien nagusiei galdetzeko. Hamar minutura

“Elkartea sortu dugu musikarien eskubideak defendatzeko”

buelatu ziren komisariako ofizialak lagunduta, oholtzatik jaisteko aginduz. Sentinelara joan eta bertan neukan agiria erakutsi nien. Udaltzainek ez zeukaten jaialdiaren berri! Zelan gerta daiteke! Eta larriena: oraindino ez digute azalpenik eman Udaletik.

Sentinelen kontrako udal dekretua ere jaso duzu.

Jaialdiaren baimena zela pentsatuz, ez nuen zabaldu... Bada, maiatzaren 28an sinatutako udal dekretuaren bitartez, Sentinelen ekitaldiak egitea debekatu didate, 2009tik arautegia betetzen ez dudalakoan. Hala ere, ez dute aipatzen orain dela bi urte eta erdi in-tsonorizatzeko lanak egin nituela loka-lean; soinua neurtzeko tresna ere erosi nuen, baina bertatik ez da Uda-leko inor ere pasatu.

Zure ustez, zer dela-eta Sentinelekiko jarrera hori?

Eurek ez bezala, herriko taldeei jotzeko aukera ematen diegulako Sentinelen. Horri guztiari mendeku-kutsua hartzen diot. Zirrikituen bila ibili dira, nire aurka zelan jo zezaketen asmatzeko; lokaletik ere ez dira pasatu, arautegia betetzen dudana egia den ala ez egiaztatzeko. Bitartean, programatuta neuzkan kontzertu denak bertan behera utzi ditut, eta sinadurak batzen hasiko naiz Kultura Sailaren alboan. Horrez gainera, DUM elkarteak sortu dugu musikarien eskubideak aldarrikatzeko asmoz. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ **Bazkide Erabiltzailea**☐ **Bazkide Laguntzailea**

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____€

[illegible]

NA								
----	--	--	--	--	--	--	--	--

[illegible][illegible][illegible]

Herrialdea											Telefonoa								
------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	-----------	--	--	--	--	--	--	--	--

[illegible]

Kontu korrante zenbakia																		
-------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Aben duaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileak HIRUKARI emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen haren emandako informazioa eta HIRUKARIaren informazioa eta publikatuta heldarazteko. Bestelako erabiltzaileak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahiz duen datuak zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetan idatziz: hiruika@hiruika.eus

«Azken urteotako ardoek alde batera utzi dute benetako helburua: janaria laguntzea»

Olalla Elorriaga Lopez 37 urteko urduliztarrak ardorako sudurrik onenetarikoa du Hego Euskal Herrian eta estatu espainolean. Areetan bizi da, eta bertako La Granja dendaren ardotegiaren ardura dauka. Bizkaiko Sommelierren Elkarte osatzen parte hartu du, eta sozietate berria mugimendu gutxi zuen Sommelierren Elkarte Bizkaitarragaz batzeko prozesuan dihardu. Emakumea, gaztea eta euskalduna izanda, sommelierren inguruko estereotipo gehienak apurtzen dabil egunero.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Zer da sommelierra izatea?

Ardoaren hizkuntzan berba egiten duen pertsona da sommelierra. Gainera, ardoari zer zerbitzu dagokion jakin behar du, ardo bakoitzak bere protokoloa baitauka, mahaian zerbitzatzeko unean. Era berean, janariagaz armonia bat izan behar du ardo horrek. Hiru horiek betetzen dituen pertsona da sommelierra: ardoaren hizkuntza daki, ardoaren zerbitzua ondo lotzen du, eta, azkenik, bezeroa aholatzeko gai da janariagaz bat egiteko armonia sortuko duen ardoaren gainean. Hiru gauza horiek ederto kontrolatu beharrekoak dira benetako sommelierra izateko.

Zer desberdintasun du enologoaz?

Ardoa sortzen duen pertsona da enologoa. Lurraren hizkuntza ezagutu behar du, eta lurrak, klimak eta landareak dituzten beharrak entzun behar ditu, gero berak ardoaren bidez adierazteko. Enologoa sortzailea da, eta sommelierra, kontatzailea.

Sommelierra jaiotzen da, ala egin egiten da?

Egiten da. Izan dezakezu, demagun, dastaketarako dohaina; behar dituzu normalean baino zentzumen batzuk garatuagoak izatea: usaimena, adibidez. Sarri esaten dugu “zuk oso ondo bereizten dituzu usainak” eta horrelakoak, baina, azken finean, hori trebatu egiten da. Lan handia egin behar da benetako sommelierra izateko. Gero eta gehiago jakin beharrago dago: elaborazioa, metodologia, klima, leku ezberdinetako landareak eta fruituak... Eguneroko lana da.

Zer formakuntza behar da berez?

Lehenengo, ezagutu behar dituzu mota bakoitzaren ezaugarriak, bakoitza mundu ezberdin bat delako, eta beste barietateakaz alderatu. Ez dira bera ez sudurrean, ezta ahoan ere; ardo beltzak ez dira denak berdinak, zuriak ezta ere. Mota bakoitzak bere ezaugarriak dauzka. Gainera, aldaera asko dago. Hori dena ikasi behar duzu, buruan sartu; gero dator praktika, dastatze teknika. Hala, zeure buruan moldatzen zoaz, barietate bakoitza ezagutu eta bereizteko, lurralde ezberdinetako ezaugarriak oinarri hartuta.

“**Marmitakoagaz, Bizkaiko Txakolina hartuko nuke; ez dut markarik aipatuko. Kalitate handiko ardoak dira**”

Hemen, nora jo daiteke sommelierren prestakuntza jasotzeko?

Gaur egun, badaukagu Artxandako ostalaritza-eskola. Bertan, espezialitate-ikastaro profesionala dute, urte bikoak. Basque Culinary Centerren ere, zenbait ikastaro dago profesionalentzat. Bestalde, ardoaren zaleentzat tailerrak izaten dira. Nik neuk ematen ditut dendan zein kanpoan, eskatuz gero. Gero eta zale

gehiago dago, eta ardoa guztioi zabaltzea da helburua. Hortaz, jendea ardora hurbil dadin, gero eta feria eta ekimen gehiago egiten dira. Azken boladan, gazteei bereziki zuzendutakoak ere badira, ardoa helduen edaria legez ikusita baitago.

Zu zelan hasi zinen honetan?

La Granja familiaren dendan hasi nintzen. Janariaren inguruko eguneroko produktuak zein produktu bereziak dituen ohiko denda da. Txikia zen bertako ardotegia, baina gero eta ardo gehiago jarri genuen. Azkenean ordu asko ematen nuen, hasi nintzen ardoagaz lotura izaten. Jendea galdetzeraz etortzen zenean, nire aitaren bila etortzen ziren; ohiko gizonezkoen estereotipoa dela eta. Neure buruari esan nion: “ezin da halakorik izan, hemen izanez gero hainbeste ordu, eta jakiteko asmogaz nagoenez gero, begiratuko dut non ikas dezakedan”. Eta zenbait urte itxaron eta gero, Artxandan abiatu zuten Sommelier Espezialitate-ikastaroa. Bertan egin nituen urte biak, eta handik aurrera dena praktika izan da, ardogintzak zer edo zer berezia badu hori da: zure kontura ikasi eta jarraitu behar duzu.

Eskarmentu handia izan duzu azken urteotan?

Nahiko sommelier berezia naiz ni. Ikasi nuenean, ez zegoen ardotegitan lan egiten zuen profesionalik. Neure bidea egin dut, nire profila ez baita zerbitzu osoa egiten duenetakoa. Ni ez noa mahaira; nik bezeroari kontatzen diot ardoaren historia, berak aukera



Armoniarako, jaietako iradokizunak

Jaiak datozela, mesede bat eskatuko dizut: aholkatu irakurleei ardo bana, txapelketetan ohikoak diren marmitakoa eta bizkaitar erako bakailaoa laguntzeko.

Marmitakoagaz Bizkaiko Txakolina hartuko nuke, ez dut markarik aipatuko. Garrantzitsua da jakitea Bizkaiko Txakolinak egiten dituen ardoak oso kalitate handikoak direla, eta mota oso ezberdinak daudela. Bada tradizioari jarraitzen dion txakolina, baina badira gehiagora jotzen dutenak ere: barrikan fermentatuak, altzairuan fermentatuak, gozoak... mota pila bat dugu. Nahiz eta aukera erraza iruditu, inportantea da jendeak mota ezberdinak ezagutzea; eta nik gonbidatzen ditut, bakoitzak proba dezan, eta apur bat gehiago azter ditzan aukera horiek.

Bizkaiko erako bakailaoagaz, hemengo ardo bat esango nuke. Niretzat aukerarik gogokoena Errioxako ardoa litzateke, Arabako Errioxakoa. Bertatik, ardo beltzen bat proposatuko nuke, erabiltzen duten mazerazio karbonikoaren teknikari esker, freskoa dena.

Info+: olalla@lagranjaseleccion.es

egin dezan, etxera eraman aurretik. Azken urteotan, nire jarduera finkatu dut: dastaketa profesionala eta ardo-kontatzailea. Ardoaren historia kontatzen dut nik, eta ardoari buruzko ideia helarazten diot entzuleari. Nahiz eta berak edan ez, nik kontatu egiten diot zer daukan botilaren barnean.

“Zilar sudurra” izendapena irabazi duzu.

Bai, 2012an bigarren gelditu nintzen Espainiako Urrezko Sudurra Lehiaketan. Oso pozgarria izan zen, aurretik ez nintzelako inoiz izan lehiaketa batean. Lanik handiena dastaketetan egiten dut, eta beste txapelketetan, berriz, beste zenbait diziplina ere landu behar dituzu. Sariak asko lagundu dit bezeroakaz. Bestalde, jendeak ardogintzan emakume bat ikusten duenean, interesgarritzat jotzen zaitu. Sommelier legez irudi berria sortzeko lagungarria ere izan da: gaztea eta emakumea izatea ez da ohiko kontua.

Bizkaiko Sommelierren Elkarteak sortu berri duzue.

Bai, horrela da. Era berean, badago orain dela 20 urte sortu zen elkarte, baina ez da egon sommelier-talde handi eta trinkorik, eta bidean utzita zegoen elkarte zen hura... Bilbon apur bat mugitzen zen, baina beti pertsona berberen artean; elkarteak ez zuen lan-girorik, ezta proiektu sendorik ere. Azkenengo urtean, elkarteak berregitea izan da sommelier berrien artean sortu dugun proiektua, eta orain batuta gabiltza Bizkaiko Sommelierren Elkartean. Esan ge-

nezake betiko eskola zaharra eta sommelier berriak batu garela elkarte indartsua osatzeko. Bizkaian pilo bat taberna dago, jatetxerik ospetsuenetako batzuk Euskadin daude, eta Bilbon ere, Michelin izarrak baditugu. Geure burua trebatu behar dugu. Tinko ekin gura diogu formakuntzari elkarte honen bidez, jarraipena emateko eta profesional talde trinkoa izateko. Eta horretan gabiltza orain.

Zeintzuk dira zuen erronkak?

Hasteko, denon artean benetako elkarte bat dagoela

“ **Sommelierra izaten formatzeko badugu Artxanda ostalaritza eskola. Bertan espezialitate-ikastaroa dute** ”

ikusaraztea. Izan ere, urteetan bakoitzak bere alde-tik egin ditu ikastaroak eta dastaketak. Gainera, batu nahi ditugu orain arte mugitu ditugun ia 70 pertsonak. Kanpora begira, gura dugu jendeak ikus dezan benetako elkarte profesionala dagoela, eta elkarteagaz, txapelketa nazionaletan parte hartzerik badagoela, Bizkaiko sommelierren izen ona defendatzeko. Baina, bereziki, formakuntza sustatu gura dugu.

Aurten bat-egite lanak denbora luzea eskatu du, eta proposamen interesgarriak egin gura dizkiegu guregan uste osoa duten sommelier denei, uda amaitu ostean. Bestalde, ardogintzaz gehiago ezagutu gura dutenek jakin dezatela Bizkaian baditugula ikastaroak: norbanakoei zuzendutako ikastaroak, laguntaldeentzat... aukera asko dago, eta, jakina, horien artean nik ematen ditudanak.

Zein garrantzia du jakien eta ardoaren ezkontzak?

Bat-egitea oso garrantzitsua da jaten duzuenean. Nik, ezkontza baino, armonia deituko nioke, ezkontza hitza ez baitzait asko gustatzen. Mahaian garrantzi bera izan behar dute janak zein edanak. Batak ez dio besteari garrantzirik kendu behar. Hala, ondo armonizatzeko, ez da hain garrantzitsua kontraste-ko armonia dagoen ala ez. Oinarritzkoena da batak bestea planotik ez kentzea. Nire iritziz, ardoaren berezko funtzioa freskatzea da; horregatik, hain zuzen, gustukoa dut tragoak ahoan freskotasun sentsazioa uztea. Badago ardo asko ahoa gehiegi betetzen duena, hainbat frutaz eta oparotasunez, eta janariari garrantzia kentzen dio. Askotan bi tragotxo hartuz gero, ez duzu gura ardo gehiagorik. Eta mota horretakoak lirateke azken urteotan egin diren ardo gehienak; [Robert McDowell] Parker [kritikari estatubatuar famatua] eta jende horren guztien puntuak batzeko pentsatuta daude. Eta, nire ustez, horiek alde batera utzi dute benetako helburua: freskatzea eta janariari laguntzea. ◀

Askartza waterpolo ito du diru ezak

Lehorrean geldituko da Askartza B waterpolo-taldea, Bigarren Mailara igo barik. Maiatzean kirol-emaitza historikoa izan ondoren, ez du lortu aurrekontu nahikorik.



Klubak maiatzean adierazi zuen «historia» egin duela denboraldi honetan. © ASKARTZA W. T.

Askartza klubaren bigarren taldeak uko egin behar izan dio Espainiako Waterpolo Ligaren Bigarren Mailan jokatzeari. Izan ere, waterpolo-talde leioztarrak jakinarazi duenez, Udala eta hainbat enpresa kontsultatu ditu, eta egiaztatu du ez duela diru nahikorik aurrekontua orekatzeko. Askartza Bk Hirugarren Mailako Txapelketa irabazi zuen, batez beste 16,6 urteko adina zuen taldeagaz.

Klaretarrek ez dute etsipena ostendu, eta garrantz egin dute berba waterpolok bizi duen bazterreko egoeraz.

Izan ere, egoera horrek erabat zaildu die finantzabide berriak topatzea, krisi garaian eta beste kirol batzuk babes-ten dituzten enpresen artean. Leioako Udala ere ez dago orain kirol-aurrekontua zabaltzeko sasoian, klubetik aditzera eman dutenez. Horrenbestez, Askartza ez da gai izango Espainiako waterpoloaren brontzezko kategorian lehiatzeko.

Motibazio eza

Joan Albella Askartzako kirol-zuzendariak tristeziaz baloratu du gertatutako guztia: «Uretan kristorena lortu

genuen, meritu handiz gainera eta gaitoen lekutik gatzela kontuan hartuta. Izugarri kostatu zaigu hori dena, eta orain, berriz, hegoak ebaki dizkigute. Fardela neuri pasa didate: neuri dagokit lan ederra egin duten 15 mutikoen taldea motibatzea. Geure burua berrasmatu ere egin beharko dugu, eta animatu beharko dugu motibazio barik dabilen taldea. Izan ere, mutilek eurek badakite denak ezin izango direla sartu lehenengo taldearen dealdian». Askartza Ak eta Askartza Bk, hurrenez hurren, Lehenengo eta Bigarren Mailan jardun izan balute, tal-

de bakarra izango litzateke denboraldi honetan. Horrez gainera, horrelako marka ez du inoiz lortu Euskal Herriko talde batek.

Euskal Herriko Liga

Joan Albellen eta Isusko Ariasen mutilek Euskal Herriko Ligan jarraitu beharko dute, beraz. Badirudi lehia-keta horrek eskarmentu gutxi emango diela, orain arte menpean izan baitutuzte beste taldeak. Askartzak 20 urte egin ditu Estatu mailako kirolean, baina pasa den denboraldian izan ditu bere emaitzarik onenetarikoak. ◀

Espainian, Raspas eta Getxo, bat arraunean



Virginia Diazek skiff absolutuan lortu zuen urrea, Sevillan. © RASPAS A. T.

Ekainaren 19tik 21era, Espainiako arraun olinpikoko txapelketa hartu zuten Sevillako La Cartuja instalazioek. Raspas eta Getxo arrauntaldeek talde berezia osatu zuten, Getxoko Arriluze taldea izendapenagaz. Esperimentua ez zen izan txarra,

biek batera hiru domina poltsikoratu baitzituzten: urrezko bi eta brontzeko bat. Bestalde, pasa den ekainaren 13an, hamaika domina lortu zituzten talde biek jarleku mugikorrek Euskadiko Txapelketan, Legution: algortarrek, sei domina, eta aretarrek, bost. ◀

Uribekostarrak ederto, Nesken Surf Biltzarrean



Peña-txuriko Ibone Gomez, eskuinean. © EHSURF

Garazi Sanchez surflari getxoztarra eta Leire Fuente eta Oihana Lopez sopeloztarrak bigarren gelditu ziren pasa den zapatuan Bakion jokaturako Nesken Surf Biltzarrean. Sanchez open kategorian lehiatu zen, eta Lopez, 14 urte azpikoetan. Fuentek, berriz, bi sari lortu zituen: 18 urte azpikoaren zilarra, eta open mailako brontzea. Peña-txuriko Ibone Gomez 4. sailkatu zen, 12 urte azpikoaren kategorian. Guztira, 30 bat emakumek parte hartu zuten. Ainara Aymat zarauztarrak irabazi zuen open kategorian. ◀

Gura duzu Leticia Canalesegaz entrenatu?



Aldundiak ere lagundu du surflaria. © L. CANALES

Leticia Canales 20 urteko surflari sopeloztarrak Europako Txapelketa irabazteko erronka ipini dio bere buruari; izan ere, txapeldunordea izan zen, lesionatu baino lehen. Nazioarteko hainbat probatan jardun beharko du aurretik, horrek dakartzan gastuakaz. Hori dela eta, *crowdfunding* kanpaina bati ekin dio sopeloztarrak. Canalesek hainbat sari ipini ditu zaileentzat, besteak beste: 500 euro jartzan duenak aukera izango du beragaz entrenatzeko. ◀

info+: <http://ttiki.com/340275>

Getxo Rugby Taldea, 40 urtez



Isasi, Gezuraga eta Lazarok sortu zuten Getxo Rugby Taldea, 1975ean. © ENEKO TXARROALDE

Pasa den zapatuan, hilak 20, Getxo Rugby Taldeak 40. urtemuga ospatu zuen Faduran, denboraldi amaierako ohiko bazkaria baliatuta. Antolatzaileek zabaldu dutenez, «hunkigarria» izan zen ekitaldia. Izan ere, taldearen sendi zabalak osatzen duten 500 bat lagunek parte hartu zuten festan, tartean 35 jokalaririk beteranok.

Neska-mutil txikienek eman zioten hasiera eguneko egitaraua, kontaktu bako Touch Rugby sariketa baten bidez. Errugbi Eskolako ehun umek baino gehiagok gozatu zuten haientzat prestatutako jolasez. Ondoren, bazkaria egin zuten bertako erretegiaren. Bazkalostean, aurtengo Euskal Ligako ira-

bazleak saritu zituzten. Halere, ostean heldu zen denek espero zuten unea. Andoni Saitua presidenteak opari bana eman zien Jon Ugutz Lazaro «el Brujo», Ramon Isasi «Pepilo» eta Txomin Gezuraga «Pitxon» Getxo Rugby Taldearen sortzaileei, klubak egin zien gorazarrean. 1975-1976 denboraldiko senior eta gazte taldeei eta Jose Marina «Pepe» entrenatzaileari ere taldearen txapela eman zieten.

Touch Rugbyko lehiaketarik ez

Datorren zapatuan, hilak 27, Faduran jokatzekoa zen Touch Rugby Lehiaketa Mistoaren bertan behera lotu da. Euskadi Touch elkarteak irailean egiten ahaleginduko da. ◀

Bitakoraren elkartasun martxa Getxon zapatuan

Zapatuan Getxoko udalerriak hartuko du Bizkaiko Gurutze Gorriak babestutako neska-mutil behartsuen aldeko I. Elkartasun Martxa. Bitakora elkarteak antolatuta, Algortako Ereaga hondartzako turismo-bulegoa eta Areetako Evaristo Txurrukaren moila lotuko ditu ibilbideak; Gurutze Gorriko postuaren ondorengo ere igaroko da. Goizeko 10:00etan irten, eta sei kilometro oinez egingo dituzte parte-hartzaileek: Ereagatik Txurrukara, eta buelta. Hori egiteko pare bat ordu aurrekusi dute antolatzaileek. Interesatuak bost euro ordaindu beharko dituzte; Gurutze Go-

rriak sustatutako Hazi izeneko ekimenera bideratuko dira. Izena emateko jor ahal izango dute La Caixaren Areetako Urkixo kaleko 11. zenbakiko bulegora, edo Bitakora elkartearen posta elektronikora. Parte-hartzaileek gizarte-ekintzan euren harri-koxkorra jartzeaz gainera, anoa, dortsala eta opariak izango dituzte irteeran. Heltzean, berriaz, hainbat sari zozketatuko dituzte.

Bizkaiko Gurutze Gorriaren Hazi proiektuan, umeei babes emozionala emateagaz batera, hainbat baliabide eskaintzen diete: eskola-materiala, arropa, higienarako kit-ak, askaria...

info+: info@bitakora.org / 646 472 272



San Nikolaseko txapelketak baditu irabazleak. Pasa den barikuko finalean, palista onenak izan ziren Fano eta Garate lehenengo mailan, eta Igotz eta Ubieta, bigarren kategorian. 120 jokalarik parte hartu dute Algortako txapelketa herrikoia 24. edizioan.

Uda-gym campusa egingo dute Sakonetan

Leioako Sakoneta gimnasia erritmikoko taldeak lehenengo udako campusa egingo du datorren uztailan. Klubak honakoak eskainiko dizkie 2000. eta 2008. urteen bitartean jaiotako neska-mutilei: gimnasia-saio egokituak, hainbat aparatutako teknikak, gorputz-malgutasuna, *zumba*, igeriketa, jolasak eta txangoak, besteak beste. Gaztetxoek astegunetan gozatu ahal izango dute eskaintza horregaz, 16:00etatik 19:00etara, bi astez edo hilabete osoz. Interesatutako gurasoek ekainaren 29a baino lehen eman beharko dute izena. ◀

info+: 649 286 003 / sakonetaget.com

Goiherriek ez du 640 kiloko txapela lortu

Bilboko Zorrotza auzoak hartu zuen domekan Lur Gaine Euskadiko Sokatira Txapelketaren finala, 640 kiloko modalitatean. Martiartun hilaren 13an gertatu zen legez, Goiherrikoek Laukizko Gaztedikoakaz berdindu zuten. Hortaz, maiatzean Mutrikun Gaztedik lortu zuen puntu bateko abantaila erabakigarria izan da txapela Laukizera eramateko. Erandioztarren taldeak 2. eta 4. sailkatu ziren. Halere, errebantxa gertu dago: zapatuan, Udondon abiatuko da 600 kiloko dema. Laukiztik pasa ostean, finala Erandioko San Kristobalen izango da, uztailaren 11n. ◀

Sopelako jaietan, pala-txapelketa mistoaren finala

Domekan, hilak 28, Sopelako pala txapelketa parekide eta herrikoia 21:00etatik aurrera, Irantzu Castrok eta Julene Migalek euren trebezia neurtuko dute Garazi Alvarezegaz eta Aran Ituartegaz. Guztira, 30 lagunek parte hartu dute txapelketan. Profesionalen txanda lehenago izango da, zapatu eguerdian, leku berean. Bi partida jokatu dituzte: lehenengoan, Landetak eta Ibargaraik jokatu dute Zubiriren eta Ibai Perezen aurka; bigarren partidaren, Gaubekak eta Imanolek euren indarrak neurtuko dituzte Fustogaz eta Ayerbegaz. ◀

Jorge Camiñak Austriako tenis saria irabazi du

Jorge Camiña tenis-jokalaria getxoztarrek Sari Ireki Europarra irabazi zuen hilaren 14an, Austriako Poertschach herrian. 65 urtetik gorako kategorian nagusitu zen tenislari beterranoa, finalean Marjan Furlan esloveniarrari 6-1 eta 6-3 irabazita. Munduko seigarrena da Furlan. Txapelketa horretan, bederatzigarrenez jarraian nagusitzea lortu du Jorge Camiñak. Are gehiago, aurretik ere, bederatziz urte horiek baino lehen, birritan irabazi du Camiñak lehiaketa hori. Eta daborduko horrela ez bada ere, 2011ra arte Europako Txapelketaren kategoria zeukan Poertschacheko sariketarako. ◀

Lointeketik erritmoa bizkortu du



Cristina Martinez arrosaz, eta Eider Merino zuriz, Euskal Emakumeen Bira. © LOINTEK TEAM

Abiadura handiko astea izan du Sopelako Lointek Team txirrindularitza-taldeak, Eider Merino, Belen Lopez, Cristina Martinez eta Alicia Gonzalezekin. Euskal Emakumeen Bira, Eider Merino balmasedarrak euskal herritar onenaren maillot zuria irabazi zuen, eta Cristina Martinez taldekide valentziarrak, berriz, maillot arrosa jantzi zuen, gazterik onena. Kontrako aldean, aldiz, Sheyla Gutierrez errioxarrak lasterketa utzi behar izan zuen; asmak jota, arnasestuka baitzebil. Pasa den zapatuan, oster, Gutierrez kapaz izan zen Baku-n (Azerbaijan) egindako Lehenengo Joko Europarren zirkuitua bukatzeko, eta 42. postu xumea lortzeko. Proba horretan, 68 parte-hartzaileetatik 17k oina lurrean ipini behar izan zuten, tartean Lointek sendiko Fanny Riberot eta Soile Lamboley txirrindulari frantsesek. Kronoaren kontra, aldiz, emaitza hobea izan zuen Gutierrezek, errepideko proban baino; izan ere, 22. postuan ailega-

tu zen helmugara. Errioxarrak aitortu duenez, «lasaitasunez» hartu zuen proba, «asmaren sintomarik ez» zuelako izan. Pasa den zapatuan ere, baina Tafallan, Alicia Gonzalez asturiarra laugarren sartu zen Euskaldun Sariko proban, Elite kategoriako sailkapen nagusian hirugarren postutik bigarrenera igotzeko beste. Bere aldetik, Eider Merino 23 urte azpiko txirrindularirik onena izan zen.

Espainiako Kopa

Hilaren 21ean, domeka, Errioxako Villamediana de Iregua herrian jokatu ziren, lasterketa berean, Euskaldun Sariko azken-hirugarren etapa eta Espainiako Koparako azken proba. Bertan, Lointek taldeko Belen Lopez cadiztarrak Kopa irabaztea lortu zuen, etapako seigarrena izan zen eta. Gainera, Eider Merinok eta Alicia Gonzalezek mendiko eta tarteko helmugetako maillotak jantzi zituzten, hurrenez hurren. Sopeloztarrak taldekako sailkapenean ere nagusitu ziren. ◀

Arenasi igoera errematatzea falta zaio

Bigarren B mailatik 90 minutura dago Arenas futbol taldea, eta abantaila daroa. Sociedad Deportiva Logroñes taldearen aurka domekan lortutako garaipenak (0-1) lasaitasuna emango dio, igoerako play-offa errematatzeko Gobelan. Halere, getxoztarrak ezin izango dira lozorroan gelditu, jakin baitakite zer den azken partidaren promozioa galtzea. Izan ere, hirugarrenez dabilta igoerako deman. Arenasek zaleen sostengua behar izango du zapatuan, bueltako partidaren; Gobelan jokatu da, 18:00etan. ◀

Sabin Merinoren etorkizuna, jokoan Athleticen

Domekan, hilak 28, jokatu da Bilbao Athleticen Bigarren Mailara igotzeko azken partida, goizeko 12:00etan, Cadizko Ramon de Carranza futbol-zelaian. Presio handia izango du Sabin Merino Bilbaitheko aurrelari urduliztarrak. Izan ere, Cuco Zigandaren kapitaina izateaz gainera, Ernesto Valverde konbentzitu behar du beteta dagoen lehenengo taldera eroan dezan. Osterantz, urduliztarrak bigarren taldean jarrai lezake, edo klubak beste talde bati utz liezaioke. Merinok 23 urte ditu, eta 18 gol sartu ditu denboraldian, 41 partidatan. ◀

Elaia Torrontegik zilarra lortu du Austriako Sarian

Elaia Torrontegi Ronco taekwondolari plentziarrak zilarrezko domina lortu zuen maiatzaren akabuan, Innsbruck-en (Austria). Torrontegi Austriako Sarian lehiatu zen, G-1 senior mailan, 46 kilo azpiko kategorian. Plentziarra aise nagusitu zitzaion Austria eta Serbiako aurkari banari, baina estuago ibili zen Ioanna Koutsou greziarraren aurka. Finalean, Iryna Romoldanova munduko txapeladunorde ukrainarrak irabazi zion: 3-5. Australian lehiatuko da plentziarra, ekainaren 26tik 28ra, barikutik domekara. ◀

Jaime Bustok elikagai-banku bati lagundu dio

Jaime Busto trial-pilotu gorliztarrak parte hartu zuen elkartasun erakustaldi batean pasa den barikuan, Coruña (Galizia) Rias Altas elikagai-bankuari laguntzeko. Bustok hainbat akrobazia egin zuen, Riazor kirol Jauregian, 4.000 bat ikusleren aurrean. Beste pilotu batzuek ere jardun zuten, moto GP-koek zein trialekoek: Marc Marquez, Dani Pedrosa, Toni Bou eta Takahisa Fujinami. Lehenengo estimazioen arabera, pilotuen ekimenari esker, 7.000 euro baino gehiago eskuratuko ditu elikagai-bankuak, garbi. ◀

REBEL TATTOO

Basagoiti 73, 48991 ALGORTA

Tf. 946 12 07 52

facebook/RebelTattooAlgorta

I

Iñaki Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45

Tellexe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

GAVRKO

GIZONENTZAKO MODA

Zabala 9

ALGORTA

Tf. 94 460 70 84

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf. 94 460 90 31

48990 ALGORTA

Sudokua

7	3							
		5		3			6	
			8				4	
					9		2	
	9	1			8			
5	4		7					
					1	4		
		4	2	5			3	
	1				6			5

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

5	6	2	9	8	7	7	1	3
8	3	1	7	5	2	7	9	6
9	7	7	1	6	3	2	5	8
6	1	9	3	2	7	8	7	5
7	5	3	8	7	9	1	6	2
7	2	8	6	1	5	3	7	9
3	4	6	5	7	8	9	2	1
1	9	7	2	3	6	5	8	7
2	8	5	7	9	1	6	3	7

Getxo Jazz 2015 Sarreraren zozketa

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Getxoko jazzaldirako sarrerak zozkatuko ditugu! Uztailaren 1etik 5era egingo den jaialdiko kontzertu bakoitzerako sarrera bikoitza dugu zotz egiteko.

Ekainaren 29a baino lehenago, helarazi zure izen-deiturak, zein kontzertutara joan gurako zenuke eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotze..

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



HAIZEA
SOPELA
Etxearen partez

Zorionak Haizea, 7 urte bihar!!!!
Muxu haundi bat, asko maite zaitugu!
Ea zertara gonbidatzen gaituzun amatxu eta inguruko guztiak!



IURGI
BARRIKA
Etxearen partez

Zorionak Iurgi! Herenegun 4 urte ein zenduazun ta! Patxo erraldoi bat etxekuen partez.



CARLOS
ASTRABUDUA
Ari eta Maria

Itzela zara! Paregabea! Eta asko maite zaitugu! Zorionak mutiko!!!!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zeure buruari hainbeste esan ostean, akabuan udako solstizioaren sutara botatzea ahaztu zitzaizun. Txiskeroaz ere erre dezakezu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Pozik eta harro zaudenean, kopeta altxatu eta aurrerantz begiratzen duzu. Baina horrela ez duzu lurtean txanponik aurkituko...



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Eman dizun opariagatik ez du ezertxo ere eskatu, baina, zelanbait, zorretan sentitzen duzu zeure burua. Ez eman buelta gehiegi.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Laster, bisitariak etorriko zaizkizu, eta egundoko poztasuna emango dizute. Halere, joatean, aske sentituko zara.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Daborduko, udan gaude. Ez duzu uste horrelako gertaera ospatu beharra dagoenik? Hasi planak egiten!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ordu libre gehiago izango duzu, datozen asteotan. Hasi planak egiten, denbora hori gura duzunagaz disfrutatzeke!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Iratzargailua jubilatzen zara, eta ez da ametsa izango, ondo merezitako oporrak baino. Bejondeizula!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Denon artean defendatu beharra dago denona dena. Oso argi daukazu zuk, baina zalantza duzu ea besteei ulertu duten.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Aste akabuetan, zure gelako hormak ahaztuta daude zugaz: barikuan jaietara atera, eta auskalo noiz bueltatuko zaren.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Eguna ondo hasteko, komeni da gosari dotorea egitea. Denetarik jateaz gainera, bila ezazu katilu zabalago bat.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Irribarretsu ibiliko zara, datozen egunotan, eta alaitasun handi horren jatorriaz galdetuko dizute lagunek. Jakingo balute!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Berdin da zenbat katu beltz gurutzatu zaizkizun, ispilua apurtu duzun edo zenbat eskailera-aren azpitik pasa zaren. Zorte ona izango duzu.



Kexa baten arabera, Getxoko Udalak ez zuen ezarri Ambigu eraikinaren zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jaso ahal izateko baldintzarik.

Euskararen telefonoa

Euskaraz bizitzeko herritarren grina

Euskararen Telefonoaren bidez

2014an jasotako gertaerakaz osatutako txostena aurkeztu du Behatokiak: 1.013 kasu jaso zituen iaz, eta kexak izan ziren horietako 936; Uribe Kosta ez dago urraketa horietatik libre.

IKER RINCON MORENO

Herritarrek Euskararen Telefonoaren bitartez 2014an Behatokira helarazitako bizipenak batzen ditu *Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian 2014* txostenak. Hilaren 11n aurkeztu zuen Bilbon Garbiñe Petriati Behatokiko zuzendaria, eta aurkezpenean azaldu zuenez, zerbitzu horren bidez Behatokira helarazitako gertaerek agerian jartzen dute «gero eta gehiago» direla euskaraz bizi gura duten herritarrek, «eta gero eta determinazio handiagoarekin ekiten diotela euren nahi hori errealtate bihurtzeko jardunari». Hala ere, salatu zuen gaur eguneko errealtateak ez duela ematen aukera handirik euskaraz bizitzeko; hori dela eta, «bakterketa, nahigabea, amorrua, inpotentzia... sentimendu ugari sentiarazten diote herritarrari urraketek», esan zuen Petriatik. Gaineratu zuen oztopo horien guztien aurrean, baina, herritarra prest dagoela aurre

egiteko, eta konponbidea bilatzen ahalegintzen dela; hala, «horretarako laguntza eta elkartasuna eskatu eta bilatzen ditu, Behatokira joz. Ikusi ahal izan dugu elkarlanean aldaketa eragin dezakegula». Era berean, euskaltzale aktiboa «indartzen» dabilela nabarmendu zuen. Horrez gainera, elkarlanerako deia luzatu zuen Behatokiko zuzendariak, herritarren eta erakundeen «konplizitatea» bultzatzeko.

Euskaltzale aktiboa «indartzen» badabil ere, herritarren eta erakundeen «konplizitatea» bultzatu behar da oraindik ere

Testuinguru orokorraren barruan gertatzen dira dira, berriz, txostenak jasotzen dituen egoerak: «Euskal Herriko eremu administratibo guztietan, estatu-administrazioan, administrazio autonomikoetan, toki-administrazioetan, arlo publikoan eta sektore sozioekonomikoan gertatzen dira urraketak». Azterketan bildutako ondorioen arabera, oraindino ere «nabarmena» da frantsesaren eta gaztelaniaren nagusitasuna Euskal Herrian; erakunde publikoek zein pribatuek hizkuntza-eskubideen bermea aintzat hartzen ez dutenez, eskubidez gabeturik ikusten dute herritarrek euren burua kasu askotan. «Balantza ez

dago orekatuta», salatzen dute Behatokitik. Euskaraz jarduteko ezina mota guztietako zerbitzu eta alorrean islatzen dela azaltzen du Petriatik: osasun zerbitzuetan, justiziaren eremuan, segurtasun-arloan, administrazio denen jardura orokorretan, hezkuntzan, aisialdian eta komunikabideetan, berbarako. Jardura horien denen artean, baina, hainbat eremu nabarmen dituzten txostenak: osasun-arloa, herrizaingoa, justizia, hezkuntza eta sektore sozioekonomikoa.

Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da Behatokia. Hori horrela, eskubide horiek babesteko lan egiten du Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan. Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak babestez gain, horiek urratzen direnean salaketak egiteaz ere arduratzen da Behatokia.

1.013 gertakari, Euskal Herrian

Herritarrek helarazitako 1.013 kasu jaso zituen guztira, iaz; 1.062 kasu bildu zituen 2013an. Hala, 2014an jasotako horietatik guztietatik, kexak 936 izan ziren, kontsultak 21, zoriontzeak 43, euskaraz datu nahikorik ez dutenak 10, eta izaera gabekoak (euskaraz ulertezinak direnak) 3. Gertaera horiek guztiak errealtatearen zati bat dira, lagin bat besterik ez, baina euskal hiztunen benetako egoerara eta egunerokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzen gaituztela ohartarazten dute Behatokikoek.

Euskal Herriko bazter guztietatik heldu dira kasu



Sopelako hondartzetako TAOko txartelak gaztelera hutsezkoak izatea salatu zuen herritar batek. BEHATOKIA

horiek, eta Uribe Kosta ez dago hizkuntza-eskubideen urraketa horietatik libre. Berbarako, Sopelako hondartzetako TAOko tiketak gaztelania hutsean egon izana leporatu zioten Udalari. Era berean, Getxoko Udalak hiru kexa jaso zituen, gutxienez, iaz. Lehenengoa, euskaraz ez zekielako hezkuntza kontuez arduratzen den udal langileak. «Oso larria da, bera arduratzen delako hezkuntza kontu guztietan koordinazio-lanak egiteaz Udalaren eta Getxoko ikastetxe eta elkarte guztien artean», dio herritarrek jarritako kexan; «pentsa, euskara-elkartearekin ere gaztelaniaz izaten du harremana! Mezuak euskaraz idatzi eta ulertzen ditu, baina gaztelaniaz erantzuten ditu. Eta telefonoz berba egiten dugunean, gaztelaniaz», gaineratu du.

Getxon jasotako bigarren gertakaria Ambigu ize-neko udal eraikinari dago lotuta. Kexaren arabera, ez zuten neurririk ezarri zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jaso ahal izateko ziurta zedin eraikin hori ostalaritzako jatetxe gisa erabiltzeko baldintzetan. Azkenik, beste herritar batek salatu zuen «erdara

«Traba asko» daude euskaraz bizi ahal izateko, baina «burugogorra» izanez gero, bide onean pausoak eman daitezke

hutsean» kaleratu zela Getxoko Udalak Deia egunkarian argitaratutako iragarki bat, «European City of Sport Getxo 2014» izenburupean.

Gorlizko Udala ere herritar baten jomugan gelditu zen, Andra Mariko jaien harira 2014ko abuztuaren 1ean, Deian argitaratutako publizitatea gaztelaniaz kontratatzeagatik. Hala ere, Udalak egun horretan bertan ukatu zuen egunkari horretako «Hemendik» gehigarrian argitaratutako artikuluekiko lotura: «artikulu horretan ez da jasotzen udal honen inolako ordezkari egindako elkarriketarik, eta ez da aipatzen inolako ordezkari publiko edo udal langileren adierazpenik. Artikulua irakurrita argi ikusten

da edukia egunkariaren kazetaritza-lanaren emaitza dela; beraz, edukia bera zein euskaraz ez egotea ere ezin zaizkio Udal honi bakarrik leporatu». Era berean, adierazi zuen Udalak egiten dituen ekitaldi eta ekintza guztietan hizkuntza ofizial biak errespetatzeko ahaleginak egiten dituela eta hala izan dadin interesa duela.

Herritarren ekinez, egina

Gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa euskaraz egin daitekeen arren, gaur egun ere oso zaila da azterketa praktikoa euskaraz egitea. Orain arte ezinezkoa zen, Trafiko Zuzendaritzak jarritako aztertzaileak, zelanbait, elebakarrak direlako. Hala ere, joan den urtean, Ekaitz Larrazabal getxoxtarrak azterketa praktikoa egiteko hautua hartu, eta lau kexa jarri zituen helburua lortzeko: «hasiera batean, autoeskolatik egin genuen eskaria, eta Espainiako Barne Ministerioaren gutun bat heldu zitzaigun erantzunagaz. Horren arabera, azterketa gaztelaniaz egiteko 'eskubidea' nuen, aztertzaile euskaldunik ez zegoela-eta. Ironiazko gutun bat zen, antza...». Horren aurrean, Behatokiagaz harremanetan jarri, eta bigarren kexa jarri zuen. Hiru egun falta ziren azterketa egiteko; hortaz, litekeena zen gaztelaraz egin behar izatea. Hala ere, Larrazabalek aurrera jarraitu, eta hirugarren kexa jarri zuen Elebiden, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuan. Azkenik, Getxoko Udaleko euskara-tek-nikariaren bitartez, Getxoko Udaletik laugarrena jarri zuen, baina guztiek jaso zuten lehenengoaren erantzun bera. «Nire esku zegoena egin nuen, eta azterketa-egunean, hara non aztertzailea euskalduna izan zen, eta euskaraz etorri zitzaidan». Getxoxtarrak argi du «mugimenduren bat edo presioaren bat» egon zela horren aurrean. Egindako bidearen emaitza ikusita, Ekaitz Larrazabalek argi du «traba asko» daudela gauzak euskaraz lortzeko, eta jendeak «orokorrean errazenera jotzen du», horren aurrean. Hala ere, «burugogorra» izanez gero, euskaraz bizi ahal izateko pausoak eman daitezkeela uste du, «behintzat saiatu beharra dago!». ◀

2014ko txostena

Salaketak guztira: 1.013

- Kontsultak: 21
- Kexak: 936
- Zoriontzeak: 43
- Izaera gabeak: 3
- Datuak falta: 10
- Herritarrek jarritakoak dira gehienak

Txostena honako ataletan banatuta dago:

- Osasuna, Justizia, Herrizaingoa, Hezkuntza, Administrazioa, Ekonomia, Zerbitzuak, Hedabideak, Aisialdia eta Gizarte eragileak.

info+:

- www.behatokia.org
- Euskararen Telefonoa:
- www.euskararentelefonoa.com
- telefonoa@behatokia.org
- **902 194 332**



Ekaitz Larrazabal (Getxo)

Jarritako kexei esker, gazte getxoxtar honek gidabaimena lortzeko egin beharreko azterketa praktikoa euskaraz egitea lortu zuen joan den urtean; tartean, Behatokiari eman zion gertaeraren berri.





Lehen/Orain

Lutxanako geltokia (Erandio, 1985)



© JON PELI OLEAGAK JAKINARAZITAKO WWW.DREHSCHIEBE-FOREN.DE GUNETIK HARTUTAKO ARGAZKIA

Erretratua

Zelai Nikolas Ezkurdia

Gure Esku Dago herri-ekimeneko kidea



Autodeterminazio eskubidea beti interesatu izan zaio, «denok elkartzeko puntua» ez ezik, «askatasunaren adierazpen bat» ere badelako.

Bilbon 1968an jaio zen Zelai Nikolas; ume txikia zela heldu zen Berangora. Aurretik Areetan ere bizi zen. Barrikan aukera sortu zitzaizen berari eta senarrari baserri bat berregiteko; proiektuan sartu zen familia osoa. Han bizi dira.

Euskaria Fundazioko eta Independentistak Sareko kide ere bada. Aita-amengatik hasi zen edaten gaur egun defendatzen dituen ideiak. «Askatasunaren balioa, demokraziaren balioak eta balio kooperatiboak oso mamituak dauzkagu etxean», diosku Nikolasek. «Oso txikitatik sentitu izan gara herri honen kide, ikastolen bitartez, eta ekarpen bat egiteko borondatea gaztetatik landu dugu», gaineratu du abokatu berangoztarrak. Deustun egin zituen Zuzenbide ikasketak, eta, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzan dabil beharrean, gaur egun.

Zelai Nikolasek aitortzen duenez, betidanik interesatu izan zaio autodeterminazio eskubidea, «denok el-

kartzeko puntua» ez ezik, «askatasunaren adierazpen bat» ere badelako. Bere berbetan, autodeterminazio eskubideak «libreago eta helduago» egiten gaitu; eta «gizarte zoriontsuago bat lortzeko aukera» ematen digu.

Hiru seme-alaben ama ere bada Barrikako bizilaguna. Harro berba egi-

“Gizarte zoriontsuago bat lantzea da gurasoek egin dezakegun gauzarik politena”

ten du haiei buruz. Bere ustez, ama edo aita batek seme-alabei egin diezaieken ekarpenik politena da «gizarte zoriontsuago baten alde» lan egitea. «Oso bizkorak eta zintzoak dira. Gura nuke Euskal Herriak aukerak eman diezaizkien pertsona bezala garatzeko eta euren bizitza egiteko», adierazi du Nikolasek. ◀

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus **P.-Ku.:** 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagarmínaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu
Testuen orrazketa: Iratze Ormatza

Argazkiak:

Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez / Ninbe Landa
Kudeaketa: Zortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95 **CC-BY-SA**
Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

